

Gipuzkoa komunitateen gerran (1520-1521): Eguneratze historiografikoa

IAGO IRIJOA CORTÉS

Laburpena: *Gipuzkoako hiribilduek 1520. urte amaieran eta 1521. urte hasieran korrexidorearen izendapenarengatik istiluak sortu zituzten. Historiografikoki, eta kronologia parekotasuna dela eta, arazoa Gaztelako Komunitateekin erlazionatua izan da. Dena dela, 70 eta 80ko hamarkadetan egindako ikerketek ez zuten antzekotasun hori oso garbi utzi, ondorioak Probintziaren dinamikarekin erlazionatutako arazotzat izan zutelarik, baina gipuzkoar faktoreak erabat argitu gabe. Azkeneko 20 urteetan inork ez du gaia jorratu, nahiz eta euskal historiografiak berebiziko bultzada bizi, gipuzkoar gatazkarekin zerikusia duten gai batzuetan sakonduz. Horregatik, lerro hauen bitartez, eta azken berrikuntzat eta ekarpenak kontutan hartuz, gaiaren egoera zein den aditzera eman nahi dugu.*

Resumen: *El conflicto planteado por el nombramiento del corregidor en Gipuzkoa entre finales de 1520 y mediados de 1521 ha supuesto una incógnita para los investigadores. Por coincidencia de fechas, los principales estudios, producidos sobre todo en los 70 y 80, fueron encaminados a intentar englobarlo dentro del fenómeno comunero. Sin embargo, llegaron a la conclusión de que el caso guipuzcoano era otro tipo de problema cuya casuística parecía adentrarse en la propia dinámica provincial. Los estudios han quedado aparcados cerca de 20 años, etapa en la que la historiografía vasca ha conocido importantes avances, mejorando el conocimiento de algunos aspectos relacionados con el problema. A través de estas líneas queremos mostrar el estado de la cuestión y enmarcar los aspectos a analizar en este nuevo contexto.*

Gipuzkoa komunitateen gerran (1520-1521): Eguneratze historiografikoa

1520. urte amaieran Gipuzkoako hiribilduen artean arazoak sortu ziren korrexidore berriaren izendapena zela eta. Donostia buru zuen taldeak Cristóbal Vázquez de Acuña erregearen delegatutzat onartu bazuen, ez zen hala izan Hernanik bideratzen zuten taldearekin¹. Azken honek, izendapena Gipuzkoako eskubide eta pribilegioen aurka zihoala argudiatzen zuen. Izendapenaren inguruko tira-birak hilabete istilutsuak ekarri zituen, nagusienak, azaroa eta urtarrila bitartean izan zirelarik. Baina apirila eta maiatzean ere, oraindik nolabaiteko tentsioa bizi zen hiribilduen artean, zeina frantsesek eragindako ofentsibarekin itzali zela dirudien.

Gaztelar Komunitateen gerra eta gipuzkoar istiluen artean dauden kronologia antzekotasunak direla eta, ikerlari gehienek arazo probintzialari zentzu horretan erreparatu egin diote; hau da, Gipuzkoan gertatutakoa Komunitateekin zerikusia zuen arazo bat zen edo ez aztertzeari ekin diote. Ondorioak orokorrean arazo ezberdinen aurrean gaudela zioten, nahiz eta Hernaniko taldeak gaztelar komunerorekin kontaktuak izan. Hori dela eta, 70 eta 80ko hamarkadetan izandako ikerketek arazoa gipuzkoar dinamikarekin zerikusia zuela ondorioztatu zuten eta beraz, benetako arrazoiak Erdi Aro eta Aro Modernoen arteko trantsizio garaian oinarriturik zeudela. Azken finean, Gipuzkoaren egituraketa korporatiboa finkatzen ari zenean, behin Behe Ertaroan lurralde hori antolatzeke bi aukeren arteko borroka —Ahaide Nagusia eta hiribilduena-puntu nagusienetan behinik behin, gainditua zegoelarik.

Ordutik ordea, gaiak ez zuzenki du inolako sakontasunik ezagutu; eta hori euskal historiografiak azken 25-30 urteetan bizi izan duen bultzadak, gaiarekin zerikusia duten arloak jorratu dituela, korrexidorea kasu. Lerro hauen bidez, azken ekarpen eta berrikuntzak kontutan hartuz, eguneratze historiografiko bat egin nahi dugu hala argilunak zeintzuk diren islatuz.

(1) Donostiako taldean Hondarribia, Bergara, Errenteria, Elgeta, Soraluze, Elgoibar, Zarautz, Orio, Usurbil, Leintz-Gatzaga eta Sayaz zeuden. Hernaniren alboan bestalde, Tolosa, Segura, Ordizia, Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Irun, Oiartzun, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Aiztondo, Areria, Urretxu, Arrasate eta Eibar

Horretarako aurrepuntu batzuk aipatzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Lehenik eta behin, gaia aztertzeko beharrezkoa den eguneratze historiografikoaren falta. Beraz, gure artikuluak gaiaren inguruan dagoen hutsune bat du ardatz nagusitzat². Hori dela eta, gipuzkoar gatazka jorratu duten XIX eta XX. mendeko lanak aztertuko ditugu, gaiak zer nolako interpretazioak jaso dituen adieraziz.

Bestetik, arestian esan dugun bezala, ikerkuntza gehienak arazoak Komunitateekin izan zezakeen erlazioa aipatzen saiatu dira. Beraz, ez da harritzekoa 70 eta 80ko hamarkadetan bultzadarik nagusiena jaso izana, momentu berean izan baitzituen Komunitateen gerrak bere biziko berrikuntzak³; horri ondorioz, garai hartan eman ziren berrikuntza eta analisisirik nagusienak, ordu-tik ekarpen gutxi egon direlarik.

Artikulu hiru zatitan banatu dugu. Lehenengoan, ikerkuntza ezberdinek gaia konkretuki nola landu duten ikustea da. Atal hau bitan banatu dugu irizpide kronologikoak kontutan harturik. Ardatza 1973. urtea da, hau baita ikerkuntzetan inflexio puntua ezarri zuen lana argitaratu zenekoa⁴. Bigarren zatia ordea, data horretatik aurrerako ikerkuntzak izan ditu kontutan.

Bigarren atalak beste obra batzuei erreparatu egin die; hain zuzen, gipuzkoar gatazka ardatz nagusitzat ez duten lanetan jarri dugu begirada, baina gaiarekiko nolabaiteko eragina eta ekarpenak izan dituztenak. Bertan dauzkagu

(2) Kontutan hartu behar dugu euskal historiografiaren eguneratzea ere, azken urteetan ematen ari dela, nahiz eta 70 eta 80. hamarkadetan saiakerak ere egon ziren. Luzeegi joko luke bakoitza zein den azaltzea, azken ekarpenak: LEMA PUEYO, J.A.: “Euskal mediebalismoaren zenbait alderdi: lorpenak eta hutsuneak”. In: KINTANA GOIRIENA, J. eta ARTETXE SÁNCHEZ, K. (arg.): *Ikerketa berriak euskal herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*. Bilbo, 2002, Udako Euskal Unibertsitatea, 75-91.orr.; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.: “La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes. Una visión desde Gipuzkoa (1975-2000)”. In: *Sancho el Sabio* 19 (2003), 9-66.orr. Bertan ikus daitezke hainbat erreferentzia.

(3) MARAVALL, J.A.: *Las Comunidades de Castilla. Una primera revolución moderna*. Madrid, 1963, Revista de Occidente (erabiliko dugun argitalpena, Madrid, 1979⁴, Alianza Editorial); PÉREZ, J.: *La revolución de las Comunidades de Castilla, 1520-1521*. Madrid, 1977, Siglo XXI; GUTIERREZ NIETO, J.I.: *Las Comunidades como movimiento antiseñorial*. Barcelona, 1973, Planeta.

(4) AZCONA, T. de: “San Sebastián y la Provincia de Guipúzcoa durante la Guerra de las Comunidades (1520-1521)”. In: *BEHSS*, 6 (1973), 11-198.orr. 1974. urtean azaldu zen monografia gisa Dr. Caminok argitaratua. Azken hau erabiliko dugu beti.

Komunitateekin zerikusia dutenak, egile klasikoen lanak, tokiko historiaz darabiltenak eta baita argitalpen dokumentalak ere.

Azkenik, ondorioentzako lekua jarri dugu. Aurreko lanak eta gaur egungo korrante historiografikoak kontutan hartuz, zein gai landu eta sakondu daitezkeen ikusteko asmoarekin.

I. Gatazka Gipuzkoarrari buruzko lan eta artikulua

a) XIX. mende amaieratik, 1973. urterarte

Lehen fase honetan XIX. mende amaieratik XX. mende erdialderarte ezarri ditzakegu arazoa aztertzeko lehen urratsak, Komunitateekin gertatzen denaren kontra, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, XVI-XVIII. mendeetako egile klasikoek ez baitzioten arreta handiegirik jarri, beraien lanetan lerro edota parrafo gutxi batzuetara mugatuz.

Arazoari era zehatz batean lehen aldiz erreparatu ziona Serapio Mugica izan zen 1897an⁵. Bertan, ikerlariak 1520-1521. urteetan eman ziren gertaera nagusiak aipatu zituen, Donostiako Udal Agiritegian gordetzen ziren bi dokumentu transkribatuz. Egileak berak berrikuntzatzen zuen bere artikulua, zeharo ezezaguna eta aztertu gabeko gaia zela adieraziz⁶. Esan dugun bezala, gertaerarik aipagarrienak aipatzen zituen, inolako iritzi pertsonalik eman gabe; hala, 1520ko Basarteko batzarra, Acuñaeren iritsieraren ondorioz sortutako zurrumurruak, Hernaniko taldeak bideratutako erasoak, korrexidoreak emandako sententzia eta Nagerako dukeak Carlos V.ari bidalitako eskutitz bat aipatzen zituen, azken bi horiek transkribatuz.

Urte batzuk beranduago, 1903ean hain zuzen ere, Seoaneko Markesak beste artikulua bat idatzi zuen, hau ere “Euskal-Erria” aldizkarian argitaratutakoa⁷, eta ikuspuntu ezberdin bat eman zion. Mugicaren kasuan iritzi pertsonalik ematen ez zuen autoreak zela aipatu badugu, Seoanek horrelakorik egin zuenik ezin liteke esan. Bere artikuluan Komunitateei “protesta grandiosa en que lució el alarde valeroso del carácter castellano” edota “explosión patrióti-

(5) “Administración municipal y antigua de San Sebastián y varias otras curiosidades: Las Comunidades de Castilla y sus partidarios en esta Provincia”. In: *Euskal Erria* XXXVII (1897), 436-448. orr.

(6) *Ibidem*, 436.orr.

(7) “Los Comeneros de Guipúzcoa”. In: *Euskal-Erria*. XLVIII (1903), 129-132, 162-166, 193-198 eta 247-252.orr.

ca”⁸ bezala egiten zien erreferentzia, eta gaztelar altxatuei buruz hala zeritzen: “esforzados héroes, paladines de las libertades y del espíritu genuinamente nacional, los cuales por sus ideales y valor denodado, serán eternamente merecedores del respeto y la admiración de los pueblos cultos”⁹.

Dena dela, gipuzkoar istilua euskalduntzat zuen, nahiz eta batzuk foruzaleak eta besteak inperialak zirela izan; lehenak “poseídos de un espíritu patrio, entusiastas de las franquezas del país”, eta bigarrenak berriz, “entregados en cuerpo y alma al poder Real, no sólo en los hechos sino en la forma, deseos y aspiraciones”¹⁰, gipuzkoar pribilegioak mesprezatur. Beraz, XIX. mendeko liberalismoaren hizkuntza erabiltzen zuen, zeinak komuneroak askatasunaren defendatzaile sutsutzat zituen. Seoanek, gipuzkoar kasua askatasun probintzialen aldeko eta errege berriaren —alegia, Gipuzkoako ohiturak, askatasun eta pribilegioak errespetatzen ez zituenaren— aldekoen borroka zen, karlistadekin eman zen antzera. Gainera, XVI. mendean, XIXan bezala, Donostia eta Tolosa (orain, Hernanirekin batera) azaltzen ziren bi taldeetako buru.

Kutsu foruzale hau dela eta, Seoane garrantzi duen ondorio batera iritsi zen; gipuzkoar eta gaztelar kasuak ezberdinak zirela. Eta ezberdintasun hori, besteak beste, arazoan amaierak sortutako ondorioetan datza; Gaztelan altxatutakoak gogorki zigortuak izan baziren, Gipuzkoan kontrakoa gertatu zen, zigorrik ezean, beraien oinarrizko eskaerak lortu baitzituzten: Acuña probintziatik alde egitea, hain zuzen¹¹. Ondorioa ordean kontraesankorra da, geroago Hernaniko taldea eta komuneroak arazo berdinarengatik altxatu zirela baitio: Erregeak Gaztela eta Gipuzkoako ohiturei zien errespetu faltagatik hain zuzen.

Hala ere, bere interpretazio foruzaleari esker, ikertzaileak protagonisten izen ugari ematen zituen, eta horren arrazoia, bere joera foruzaleari jarraituz, ezin zitekeen beste bat izan: erregearen erabakiaren kontra altxatzeak, zera ematen zuen aditzera: “prueba de la tradicional energía que por conservar sus fueros tuvieron los guipuzcoanos de aquel entonces”. Hori dela eta, “resulta indudable que es más fuerista, más noble y más de hombres libres, el haber vencido con su energía á un gobierno que desconocía las regalías del país, despreciando condenas de muerte; que el haber sido secuaces y corifeos de los

(8) Ibidem, 129-130.orr.

(9) Ibidem, 129.orr.

(10) Ibidem, 164.orr.

(11) Ibidem, 139.orr.

Regentes, quienes tuvieron que transigir con la actitud levantada y valiente de la mayoría de los Procuradores establecidos en Hernani, los cuales no han merecido de la posteridad los títulos á que son acreedores por sus hechos”¹².

Horrek guztiak, Hernaniko taldea gatazkaren benetako garailea zela pentsarazten zion; batetik, korrejidoreak ezarritago zigorretatik libratu zelako, eta bestetik, Acuña probintziatik irten eta kargutik kentzea lortu zuelako.

Izenez aparte, Seoanek ere beste berrikuntza bat zekarren; gaiari buruzko lehenengo gaureguneratzea, Garibay, Lope Martínez de Isasti, Gorosabel edo Camino bezalako gipuzkoar egile klasikoek eman zioten aipamena landuz. Nahiz eta azalekoa izan eta obrak aipatu ez, bere ustetan Gipuzkoako historian benetan garrantzitsua izan zen gertaerari egile horiek emandako tratamendu eskasia aipatzen du¹³. Azkenik, Mugicak aipatutako gertakariekin alderatuta, ez zekarren berrikuntza handiegirik. Horrek ezarritakoak aipatzen zituen, dokumentu eta datu berriren batzuk gehituz¹⁴.

Seoanek komuneroen aldeko iritzia mantentzen bazuen, kontrako aldean jarri ditzakegu Eliodoro Ramírez Olano eta Vicente González de Echávarrik eman zioten aipamena¹⁵. Nahiz eta arabar kasua tratatu, beraien ikerkuntzan Gipuzkoako kasuarentzat lekua ere bazegoen.

(12) *Ibidem*, 251-252.orr. Aipagarria, komuneroen alde jokatu zutenen alde egiten zuen defentsa: “hora es ya que al conocer los nombres de tan estimables sujetos se les reverencie de un modo que esté en consonancia con sus proceder, y que nos apartemos de los que siguiendo servilmente la exagerada idea de sobre poner el solio a las regalías del país, les hace su apasionamiento llegar (...) al punto de declarar, cual lo hace un escritor guipuzcoano, que no publica los nombres de los Comuneros de esta provincia por no enrojecer á sus descendientes”. *Ibidem*, 162-163.orr.

(13) *Ibidem*, 250.orr.

(14) Hala nola, Debako Sasiola monastegia altxatuen elkarte puntu bat zela adierazten du. *Ibidem*, 162-163.orr. Dokumentuen artean, Erregeari zuzendutako Erret Kontseiluko eta Utrecheko Adrianoren eskutizak azaltzen dira, eta baita Nagerako Dukearen epaia ere.

(15) *Fiesta de la tradición del Pueblo Vasco. Memoria referente al tema 41 de la 4ª sección del program publicado por la excma. Diputación de Guipúzcoa que tiene por epigrafe: “La guerra de los comuneros en el País Vasco. Actitud de la Diputación de Álava en aquella ocasión: esta actitud responde á la necesidad de mantener vivas las libertades populares”*. Vitoria, 1904, Imprenta Provincial de Álava. Gipuzkoako Foru Aldundiak *La Guerra de los Comuneros en el País Vasco (tema 41 de la 4ª Sección). Memoria escrita por los señores D. Eliodoro Ramírez Olano y Vicente González de Echávarri con ocasión de las Fiestas de la tradición del Pueblo Vasco*. San Sebastián, 1905, Imprenta de la Provincia, bezala argitaratu zuen. Guk lehenengoa erabili dugu. Gipuzkoar gatazka 167-204. orrialdeetan.

Beraien lanaren ardatz nagusia, Euskal Herria Espainiarekin izan duen erlazioa sustatzen eta frogatzen saiatzea zen, eta beste egile batzuek ziotenaren kontra, inoiz ez dela isolaturik egon; aitzitik, instituzioak, pertsonai aipagarriak eta gatazka militarretan beste erreinuekin hurrenez-hurren egon dela frogatu nahi zuten, lanaren lehen zatian euskal probintziek asturiar, gaztelar, nafar edota espainiar erregeei eman dieten laguntza aipatuz¹⁶. Honek ordea, ez zuen foru eta euskal erakundeen defentsa egiten ez zutenik esan nahi¹⁷. Horregatik, arazoa foruen kontrako jarrera bat baino, gatazka komuneroa eta gipuzkoarra berdinak zirela erakutsi nahi zuten; hau da, gertakari analogoak zirela.

Honi helduz, beraiek ez zuten uste Seoanek aipatzen zuen lege eta foruen defentsa zela altxamenduaren arrazoi nagusia. Behin dokumentuak aztertu ondoren, bi egileak ez ziren aurrekoaren berekoak. Hala, gipuzkoar kasurako, Soraluçeren lanari kontra egiten zioten, egile honek berme foralen etenaldia ikusten zuen heinean¹⁸. Behin, esaldi hori aztertu ondoren, egileek, korrexidorearen jurisdikzio zibil eta kriminalaren konzentrazioa ikusten zuten, 1397. urtetik ematen zena. Hau aparatu kritikoa baten bidez frogatzen saiatzen ziren, non dokumentu eta bibliografiaren ezagutza erakusten zuten.

Teoria hori dela eta, beraientzat korrexidoreak ez zekartzan besteetan baino gaitasun gehiago; hortaz, arazoa berme foral horien etenaldia izatea baino, “una duplicidad de organismos que mutuamente se creían ser los salvaguardas de las ordenanzas de la hermandad guipuzcoana”¹⁹ zen. Beraz, Seoaneren teoria arbuiatzen zuten²⁰ bi hiribildu taldeek askatasun probintzialak defendatzen baitzituzten, eta beraz, lehenago esan dugun bezala, arazo komunero bat zela pentsatzen zuten. Horren inguruan, probintziak eta Espainiak historian zehar izandako bide amankomun hori kontutan harturik, Gipuzkoan komunitateen garaian alde guztietan eman zen gauza bera gertatu

(16) Ikus aip. lan., 3-76. orr.

(17) Ibidem, 214. orr., non foru erakundeen berrezarpenaren aldeko defentsa egiten den.

(18) SORALUCE Y ZUBIZARRETA, N. de: *Historia general de Guipúzcoa, vol. I*. Vitoria, 1870, Imprenta, Litografía y Librería de la viuda de Egaña e hijos, (arg. Amigos del Libro Vasco, Bilbao, 1985), 188. orr.

(19) RAMÍREZ OLANO, E. y GONZÁLEZ DE ECHÁVARRI, V., aip. lan., 201. orr.

(20) Nahiz eta honen lana ez aipatu.

zela zioten²¹; eta hori, Danvilaren obran dauden dokumentuetan eta Tordesillasek leku guztietara bidalitako mezu eta propagandan argudiatzen zuten²².

Ramírez Olano eta González de Echávarri, Acuña eta Nagerako dukearen sententziak gaineratzen zituzten eta azken horrek Carlos V.ari bidalitako bi eskutitz. Arabar kasua tratatzen zuten, Aguraingo kondeak Hernaniko taldeari bidalitako eskutitza, eta azken honek antolatutako batzarre bat ere barne hartzen zituen.

Urte batzuk beranduago, Oñatin, 1918. urtean izandako Eusko Ikaskuntzen lehen kongresuan, Pedro de Larrinoaren eskutik ekarpen teoriko bat iritsi zen²³. Teorikoa deritzogu, kongresuan bildutakoek argitalpen eskarri baietza eman bazioten ere, aurrera atera zenik ez dirudielako.

Bere txostenaren argitalpenak aditzera ematen duenez, lanak 1520-1524 urte bitarteko aro istilutsuaren gorputz dokumentala izan nahi zuen²⁴, beste lanetan eta argitaratu gabe zegoen dokumentazioaren bilketa eginez. Beraz, Larrinoa ez zen bakarrik Komunitateen arazoan sartzen, Nafarroako gerrateak ere kontutan hartzen zituen. Lana 219 dokumentuz osaturik zegoen, 900 orrialdetan bilduak²⁵ eta kokaleku ezberdinetatik eskuratutakoak: euskal agiritegiak, agiritegi nazionalak, Historiako Erret Akademiako Tomillo eta Vargas Ponce bildumak eta Danvila eta Gonzalezen obrak, besteak beste²⁶. Geografikoki, dokumentuek honako sailkapena zuten: Arabak, 98 dokumentu; Gaztelak eta Nafarroak, 47; Gipuzkoak, 33; Aguraingo kondeak, 29; eta azke-

(21) RAMÍREZ OLANO, E. y GONZÁLEZ DE ECHÁVARRI, V., aip.lan., 171.orr. Berriz ere 208. orrialdean adierazten dute: “Una vez más sufrió Vasconia en esa época la influencia de la nación de que forma parte integrante, como lo había sentido en los demás periodos de su historia que dejamos señalados; ora sea en los diversos sucesos de la reconquista, ora en las luchas de los banderizos”.

(22) Ibidem, 172.orr.

(23) *Comunidades de Castilla y guerra en Euskeria, 1520-1524 (Una colección diplomática)*. Bilbao, 1919, Lit., Impr. y Enc. Casa Dochao.

(24) Ibidem, 9.orr.

(25) Idem. Ikus 24.orr., non 500 aipatzen dituen.

(26) DANVILA, M.: “Historia crítica y documentada de las Comunidades de Castilla”. In: *Memorial Histórico Español*. Madrid, 1897-1900, Imprenta y Fundación de Manuel Tello, XXXV-XL liburukiak; GONZÁLEZ, T.: *Colección de cédulas, cartas-patentes, provisiones, reales órdenes y otros documentos concernientes a las Provincias Vasvas*. Madrid, 1829-1833, Imprenta Real (6 ale).

nik, Bizkaiak 12 dokumentu. Tipologiari dagokionez, era askotakoak ziren: batzarre orokor eta berezien aktak, errepartimenduak, zedulak eta erret esku-titzak, eta Aguraingo kondearen aurkako prozesuko dokumentazioa, besteak beste.

Gipuzkoako istiluei dagokienez, egileak dokumentatuak zituen batzarre batzuetarako —Hernaniko urtaliraren 21eko Batzar Orokorra; Usarragan, ekainaren 1ean, uztailaren 28an eta irailaren 25ean eta Basaten ekainaren 30ean eta irailaren 13an ospatutako Batzar Bereziak, besteak beste— dokumentazio eza somatzen zuen, beraien aurkikuntza edo argitalpenik ezagutzen ez zuela baitzioen²⁷. Dokumentazio asko museo, laborategi, bilduma eta agiritegi partikularrek gordeta egon zitekeela adierazten zuen heinean, informazio ugari kalte-ordain auzien bidez eskuratu zuela zioen²⁸.

Gure kasuari dagokionez, aipagarriak diren gauzen artean Hernaniko Batzarrak Aguraingo kondeak San Adriango gotorlekuaren eskaintzari baietz esaten diola da, nahiz eta dokumentuak argi eta garbi ezetz adierazi²⁹.

Larrinoa ere, bere lanak “depuración crítica, (...) constructiva, exégesis y complementos documentarios y de otras fuentes” egin behar zuela jabetzen zen, aipatzen duen bezala, dokumentazio asko “fué destruido para ocultar complicidades o sospechas funestas (...) que podrían transcender a generaciones venideras menguando su nota de fama o lealtad”³⁰.

Kutsu positibista honekin jarraituz, hainbat momentutan Historiaren erabilgarritasun eta ezagueraren inguruan bere intentzio eta usteak aditzera ematen zituen. Hala, Historiaren hezkuntza funtzioa nabarmentzen zuen, “hay que conquistar al gran público, a todas las castas sociales, a la masa que no lee, y

(27) Baieztapen hauekin, Seoane edota González de Echávarri eta Ramírez Olanoren artikulua irakurri ez zituela deritzogu, hauetan dokumentu horietako batzuk transkribatzen baitira.

(28) LARRINOA, P. de, aip.lan., 15.orr.

(29) Egileak, dokumentu honi esker Usarragako abenduaren 22ko batzarraren ezaguera izan zuela aipatzen zuen. Honek teoriarik, Tomillo Bilduma kontsultatu zuela adierazten du, hor gordetzen baita eskutitza. Hala ere, bertan Hernaniko Batzarrak Kontearen eskakizunari uko egiten zion: “que tanta seguridad tiene en que este la fortaleza en manos de vuestra señoría, cuanto la tenía si estuviese de su mano de ella”. Gainera, dokumentuak berak aipatzen du Batzarra Hernanin izan zela eta ez Usarragan: “estamos juntos en nuestro ayuntamiento en la noble villa de Hernani”. Ikus AZCONA, T. de: *San Sebastián...*, aip.lan., 42-43 eta 83-84.orr. Azken hauetan dokumentua transkribatzen da.

(30) LARRINOA, P.de, aip.lan., 23.orr.

popularizar y difundir liberalmente, con entusiasmo, constancia y desprendimiento, sin Mecenas particulares, por el impulso y la atención social” aipatuz; gainera, historialarien garrantzi eta haien lanaren aldeko defentsa egiten zuen, beraiek kondairak eta ipuinak alde batera utziz, iragana ezagutzen laguntzen ari baitziren³¹.

Mugicak bezala, gertakariei buruzko balorazio gutxi egiten zuen, bere obraren argitalpenean interesaturik baitzegoen. Hala ere, zenbait ideia adierazgarri aipa daitezke; hala nola, Erreinu osoa zela Erregearen aurka agertzen dena, baina ez pribilegioen ezabatzeagatik edota atzerritaren gobernua postuetan izan zezaketen garrantziztatik, baizik eta Erreinu bera ez zelako kontsultatua izan koro inperialaren inguruko erabakietan, ezta honen onarpenean ere. Gainera, Larrinoak, desestabilizazio giro horretan “gerrate zibil anarkikoek” —bai gaztelar bai euskaldunek— eragina izan zutela aipatzen zuen. Azkenik, ez zion errege berriari inolako errurik botatzen, bere ustetan, XVI. mendeko Espainia harrigarriak izan zuen erregerik adierazgarria izan baitzen eta Aro Modernoaren pertsonairik nagusia bezala aurkezten zuen³².

Gaiaren ikerkuntzan lehen hamarkada hauek izan zuten aintzindari zentzua ordea, ez zuen urte luzeetan jarraipenik izan. Hala, 1951. urterarte itxaron behar izan zen gaiarekin erlazionatutako artikulua jakin bat ezagutzeko. Urte hartan bertan, Fausto Arocena izan zen isiltasun hori apurtu zuen ikertzailea, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*-en artikulua txiki bat argitaratuz³³. Berau, Orioko Udal Agiritegian gordetako dokumentu baten transkripzioan zetzan, hari buruzko komentario txiki batekin. Momentu horretan, garrantzitsuena argitaratu gabeko dokumentu baten ezaguera zen, zeina gainera, ez zegoen probintzia edo estatu mailako agiritegietan. Luzera ere, harrigarriena Azcona eta Fernández Martínez obretan ez egotea da.

Dokumentua, Hernaniko batzarrak Donostiakoari ematen dion agindu bat da, non lehenengoak bigarrenari Errege Katolikoek baieztutako ordenantzen gordetze eta betetzea agintzen zion “a fin de conservar la Santa Hermandad de la dicha provincia y tenerla entera para en servicio de sus reyes e señores”³⁴. Arocenak, Hernanik erabilitako hizkuntza azpimarratzen du; batzutan adeitsu,

(31) Kakotsen artean jarritako esaldiak, ibidem, 24.orr.

(32) Idem.

(33) “Guipúzcoa y la Guerra de las Comunidades”. In: *BRSVAP*, 7 (1951), 276-279.orr.

(34) Ibidem, 278.orr.

bestetan berriz, agintzailea; ikertzailearen ustetan, honek komuneroen eta korrexidorea onartzen ez zuten hiribilduen arteko erlazio estua erakutsiko luke³⁵.

Arocenaren artikulua ordea, ez zuen jarraipenik izan 1967. urterarte. Orduan, F. Mateosek Aita Antxietaren jatorriari buruzko lana egiterakoan, Gipuzkoako kasuaren inguruko ekarpena egin zuen³⁶. Gipuzkoar abizen hau zuten pertsonen bilaketak, gatazka ikertzeraren eraman zuen, Hernaniko taldean Juan de Antxieta izeneko pertsona bat azaltzen baitzen.

Nahiz eta lanaren izenburuak zerikusi handirik ez izan, momentuko Gipuzkoar istiluei buruzko sintesirik onena zen. Gertaerak Simancaseko eta Danvilak eginiko lanaren dokumentazioa erabiliz kontatzen zituen, lehenengoak amaieran transkribatuz. Hauen artean, Acuñaeren epaia, Hernaniko batzarren konfederazio eskutitza eta Nagerako dukearen epaia.

Orokorrean, gertakariaren narrazioa dokumentazioak ematen zuen informazioaren arabera zen, dena objetiboki tratatuz. Ez zen ez talde bateko ez besteko kezengatik eramaten uzten, eta beraz edozein baieztapen egiterakoan, arretaz mantentzen zen, dokumentazioak aditzera ematen zuena zela argudiatuz. Horren ildotik, bere gatazkaren inguruko balorazioa nahiko zuhurra zen; “las ramificaciones de las Comunidades en Guipúzcoa (...) no dejaron de tener importancia, azuzadas desde Tordesillas y ligadas al gran comunero don Pedro de Ayala (...); pero tuvieron la particularidad de conservar, al menos en apariencia, ciertas formas de bandos o facciones tradicionales relacionadas con sus fueros y privilegios” adierazten zuen³⁷. Ikus dezakegunez ez zuen inongo aukerarik baztertzen, bai komunitateekin izan zitezkeen antzekotasunak, bai kutsu gipuzkoarreko teoriak kontutan hartuz.

Bere idatzian ere Loiolako Iñigoren, Nagerako dukearen meneko bezala, partaidetzari atal bat eskaintzen zion, gatazkaren irtenbidean pisu handi bat emanaz. Honekin erlazionatuz, aipatzekoa da, ordurarte gaia tratatu zuten ikerlariek ez zutela interes handiegirik izan Gipuzkoako patroiz izango zenaren

(35) *Ibidem*, 278-279.orr.: “Si no estuviese sobradamente claro que las Juntas de Hernani estuvieron en connivencia con los comuneros, el tono de sus decretos y de las desenfadadas frases que se acaban de registrar, lo probarían sobradamente”.

(36) “La descendencia del P. Anchieta y la guerra de las Comunidades”. *Missionalia Hispanica*-ko Separata, 24 (1967), 5-52.orr.

(37) *Ibidem*, 6.orr.

inguruko papera aztertzerakoan, nahiz eta Jesusen konpainiarekin zerikusia zuten ikerketa batzuek nolabaiteko ardura ezagutu³⁸.

Neurri batean harrigarria da Maravallen lana ez aipatzea, garai hartarako argitaratua baitzegoen; dena dela, momentu batzuetan honek defendatzen zuen Komunitateen kutsu iraultzailea aipatzen zuen. Zehazki, Hernanikoeek “tal vez por ser en mayor número y más fuertes, o por participar en el *espíritu revolucionario de las Comunidades*, contra la *actitud más bien conservadora de los seguidores de la Corona*”³⁹ sarraski ugari aurrera eraman zituztela zioen. Kontutan har dezagun ez duela erregea aipatzen, bere alde zeuden pertsonak baizik, eta ez zuela zuzenki Komunitateak iraultzaileak zirenik esaten, kutsu edo izpiritu iraultzailea zutela baizik. Nahiko jarrera zalantzarria, baina momentu horretan ematen ziren korrante historiografikoekin lotzen ez zena; horregatik, hein batean Maravallengandik hurbilago dagoela eman dezake adiztera.

Nahiz eta gertakarien narrazioan gaizki zegoen daturen bat eman⁴⁰, aipagarriak dira korrejidorearen sententziari eta Hernaniko konfederazio aktari buruzko analisiak. Mateosen ikerketek eta oharrek dokumentuen zati ezberdinak aztertzen zituzten, gertakariei buruzko ikuspegi zabalago bat izatea posible eginez. Gainera, pertsonen buruzko analisisetan barreiatzen zen, logikoa, berari interesatzen zitzaion arloa izanik Zentzu honetan, adierazgarriak dira eliz estamentuari buruzko berriak eta fraile batzuek izandako parte hartzea. Hernaniko taldearen ondoan⁴¹.

Azkenik, bere artikuluan bi ahulezia adieraz daitezke. Batetik, gaiari buruzko bibliografia aipamen eza; nahiz eta bere sintesia ona izan, baliogarri

(38) Ibidem, 24-29.orr. PEREZ ARREGUI, J.M.: San Ignacio en Azpeitia. Monografía histórica. Madrid, 1921, Administración de Razón y Fe”, 73-78.orr.; LETURIA P.J.I.: El gentilhomme Iñigo López de Loyola. Barcelona, 1941 Labor, 102-108.orr eta AROCENA, F.: “Intervención de Iñigo en la revuelta de las Comunidades”. In: *Problemas históricos guipuzcoanos en la vida de San Ignacio*. San Sebastián, 1956, Imprenta de la Provincia, 31-36.orr.

(39) MATEOS, F., op. cit., 16.orr. Kurtsibak gureak dira.

(40) Besteak beste, Gutiérrez Quixada, Acuñaaren aurrekoa, iraileko Basarteko Batzarran aukeratua izan zela zioen, han Acuña bera aukeratua izan zelarik. Ibidem, 7.orr. Ikus ORELLA, J.L.: “Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550”. In: ORELLA UNZUÉ, J.L. y GÓMEZ PIÑEIRO, J.(dirs.): *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Donostia, 1995, Gipuzkoako Batzarre Nagusiak (aurrerantzean, GBBNN) – Gipuzkoako Foru Aldundia (aurrerantzean, GFA), 211 eta 216.orr. (143-258).

(41) Azconak baino gehiago aipatzen ditu, zeinak elizgizonen inguruko ikerkuntza eskatzen zuen. Ikus MATEOS, F., aip.lan., 14.orr. eta AZCONA, T. de, aip.lan., 37.orr.

izan zitzaizkiokeen lanak argitaratuak zeuden. Bestetik, Danvilarekiko menpekotasun gehiegi, pertsona eta leku-izenetan egile honek egin zituen transkripzioetan konfidantza larregi izanez; hala ere aipagarria da Madozen hiztegiaren erabilera, gipuzkoar lurraldearen inguaren ulermena areagotzeko⁴².

Lerro hauen bitartez ikusi dugun bezala, gaiari buruzko lehen lanak, mota askotakoak dira: dokumentuen transkripzioa, sintesi txikiak eta arazoan zerkusia duten pertsonaiekin erlazonatutako ikerkuntzak. Gehienak, hainbat zentzutan mugatzen zituen dokumentazio erabilera eskasarekin; batzuk, monarkiaren eta probintziaren pribilegioen arteko borroka nabarmendu nahi zutenak; beste batzuk, gaztelar eta gipuzkoar altxatuen erlazioa baieztatu edo ezeztatzen saiatzen zirenak. Baina denek, beraien momentuan, informazio garrantzitsua eman zutenak eta etorkizuneko ikerkuntzei oinarri teoriko bat ematen zietenak.

b) 1973tik gaur egunera

70ko hamarkadak gaiaren bultzada eta aurrerapen nagusien garaia hasi zuen. Azconak 1973. urtean argitaratutako lanetik aurrea, gaiak sekulako garapena izan zuen, bai sintesi aldetik, eta baita ikuspuntu dokumentaletik ere. Hala, Azcona, Fernández Martín eta Tellechea Idígorasen lanek Larrinoaren proiektu hura Gipuzkoarako posible egin, eta arlo horretan behintzat, gutziz gainditu zuten. Gogora dezagun hiru lanek gutzira, 228 dokumentu argitaratu zituztela⁴³. Gehienak Simancaseko agiritegitik aterata, baina baita Erret Akademiatik, Agiritegi Historiko Nazionaletik eta Gipuzkoako Agiritegi Orokorretik ere. Dударik ez dago horri esker gaiak berebiziko bultzada izan zuela eta lan horiek gaiaren ikerkuntzan sakontzeko ardatz nagusiak jarri zituztela, nahiz eta ondorengo urteetan ikerlari horiek proposatutako ikerketa batzuk gutziz jorratu ez diren.

(42) MATEOS, F., aip.lan., 4 eta 10. notak. MADDOZ, P.: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar: Guipúzcoa*. Madrid, 1848, a.g. (faks. arg., Valladolid: Ámbito ediciones-GBBNN, 1991).

(43) Hurrenez hurren, AZCONA, T., de, aip.lan., 50 dokumentu; TELLECHEA IDÍGORAS, J.I.: *Hernán Pérez de Yarza, Alcaide de Behobia. Las Comunidades y la guerra de Navarra (1520-1521). Documentos inéditos*. San Sebastián, 1979, Dr. Camino, 106 dokumentu; FERNÁNDEZ MARTÍN, L.: *La contienda civil de Guipúzcoa y las Comunidades Castellana (1520-1521)*. San Sebastián, 1981, Dr. Camino, 62 dokumentu. Hauei, Azconak transkribatutako beste 10 batu behar zaie. Ikus "El País Vasco durante la Guerra de las Comunidades". In: *Historia del Pueblo Vasco*, 2. San Sebastián, 1979, Erein, 87-110.orr. (59-110); gutzira 11 dira, baina bat Fernández Martínek aipatutako obran sartu zuen.

Esan dugun bezala, gaiari sakontasuna ematen lehena, bilduma dokumental garrantzitsu eta atariko ikerkuntza batekin, Tarsicio de Azcona izan zen⁴⁴; gaia aztertu nahi duen ororentzat, nahitaezko lana bihurtu delarik. Nahiz eta gertaera nagusien narrazioa ardatz nagusia izan, ikerkuntzan zehar egileak aztertzeko zeuden hainbat puntu aipatzen zituen eta beraz etorkizunean jorratu zitezkeen hainbat ikerketa gai planteatzen zituen. Hau dela eta, Azconaren lanean “elkartasun ikertzailea” nagusi dela esan dezakegu, berak sakonki aztertu behar diren hainbat gai erakutsi eta proposatu egiten dituelako, bai gaiarekin zerikusi zuzena dutenak, baina baita historiografiak aurrera egiteko aukera ematen dutenak ere. Ordurarte aztertzeko zeuden hainbat gai eta iker-tzaileei aukera ematen ziena. Eta bere lanak hori du helburu nagusitzat: “ofrecemos nuestro estudio a ellos [Maravall, Pérez eta Gutiérrez Nietori] y a cuantos siguen ahondando el repetido tema, a fin de que el movimiento periférico de Guipúzcoa quede situado correctamente en la dinámica general, y al mismo tiempo adquieran el relieve sus matices y sus peculiaridades”⁴⁵.

Beraz, bere ikerketak sakontasun maila altu bat lortzea baino, ardatz eta datu nagusienak ezartzean datza, eta baita dokumentazio guzti hori era kritiko eta organiko batetara aditzera eman, hala hobeto uler dadin⁴⁶. Gainera, bilketa dokumental hori egiteko, dokumentu askoren sakabanatzeak, aurkitzeko zailtasunak edo gaizki egindako transkripzioek mugitzen dute⁴⁷; beraz, Larrinoaren ideia hori jarraitzen du, non Historia gizartearen zerbitzura dagoen. Zentzu honetan, kontsultatutako agiritegi eta liburutegiei eskainitako lerroak aipatzekoak dira, bertan bakoitzaren egoeraren berri ematen baitu, beraien fondoak, egoera eta erabilgarritasuna aipatuz.

Obran gaineratutako dokumentuetan signatura osoa jartzen du. Ez da harritzekoa hauek gaiaren benetako gorputz dokumentala osatzen baitute. Horien artean, protagonista ezberdinen idatziak agertzen dira: Hernaniko Batzarra, Donostiako Batzarra, Acuña korrexidorea, Aguraingo kondea, Carlos V.a, Nagerako dukea, etab. Harritzekoa da horien artean Arocenak 20 urte lehenago transkribatutako dokumentua ez agertzea.

(44) Lehenago aipatu dugun bezala, bere lana lehenengo aldiz *BEHSS* 6 (1973), 11-198.orr., azaldu zen. Ale honen aurkezpenean, José Ignacio TELLECHEA IDÍGORASEk lanari buruzko aipamen txiki bat egiten zuen 6. orrialdean. Ikus supra, 4.nota.

(45) AZCONA, T. de: *San Sebastián...*, aip.lan., VI.orr.

(46) *Ibidem*, 6.orr.

(47) Danvilaren lanari aipamen argia, berak esaten duenez. Ikus, *ibidem*, 8.orr., 5. nota.

Dena dela, 1520. urte amaieratik 1521erarte izandako gertaeren narrazioa kontatzen badu ere, Azconak ez ditu alderdi horiek bapatekotzat eta isolatutzat hartzen, urte batzuk lehenago gertatutako arazo batzuekin erlazionatzen saiatzen delarik; horien artean, 1517. urtean Getariako Batzar Nagusietan eman zen bozketa sistema aldatzearen aldeko saioa, zeinak hiribildu batzuk beste batzuen kontra jarri zituen; hiribilduen arteko ustezko tirabirak edota Ahaide Nagusiek izandako berpiztea, arlo politikoan arazoak sortuz. Honen bidez, 1520ean sortutako bi taldeen eraketa prozesuaren mugarri nagusiak jartzen saiatzen da.

Horrekin, gatazka gipuzkoarra koroaren zentralizazioaren eta askatasun probintzialen defentsaren arteko guda bezala aipatzen zuen⁴⁸. Baina ez zuen uste Donostiako taldeak probintziaren ordenantzak eta pribilegioak defendatzen ez zituenik; aitzitik, bi taldeek zergati berdinarengatik borrokatzen zirela aipatzen zuen, arazoa zen, batek Koroari fidel izatea erabaki zuela, eta besteak berriz, fideltasun horretatik banantzea. Horregatik, bere ustetan arazo gipuzkoarra Komunitateen gatazkaz aparte hasi zela zioen, nahiz eta beranduago elkartu eta kontaktuak izan, batzuetan biak bat zirenaren itxura hartuz⁴⁹. Gainera, Hernaniko Batzarrak erret boterearen aurkako borroka horretan laguntzeko aukera handiak bazituen ere, laguntza puntuala eskaini egin zien Gaztelar altxatuei, baina programa eta akzioak erabat adostu gabe⁵⁰. Berak arazo gipuzkoarra aurreko urteetatik ematen ari zenaren teoria defendatzen zuen, eta Komunitateekin eztanda egin zuela besterik ez zuen uste. Beraz erlazio hori kontestuaren araberakoa zen. Gainera, talde bati “leial” eta besteari “alxtatu” adjetiboak ezartzea baliogarria ez zela uste zuen, Gipuzkoak hilabete horietan koroa eta erregeari leial izaten jarraitu baitzuen⁵¹.

Bere lanaren hutsuneei dagokienez, lehenik garaiko kontestu historiografikoa har dezakegu. Oraindik ere, 70ko hamarkadaren hasieran euskal historiografiak jazotako aldaketa gertatzeaz baitzegoen, edota bere lehen saiakeretan. Lehenik iturriei dagokienez; oraindik udal agiritegiak aztertzeke

(48) “una fuerte batalla entre el centralismo de la corona y la defensa de las libertades provinciales”. *Ibidem*, 8.orr.

(49) “el hecho guipúzcoano [sic] se inició con independencia del movimiento comunero castellano, aunque posteriormente se enlazaron y entablaron conexiones, hasta parecer que se confundían las aspiraciones guipuzcoanas con las comuneras”. *Ibidem*, 11.orr.

(50) “se hicieron [los comuneros y la Junta señalada] algunos favores, pero sin llegar a armonizar sus programas y sus acciones”. *Ibidem*, 32.orr.

(51) *Ibidem*, 28.orr.

zeuden, gordetzen zuten informazioa ezagutzen ez zelarik. Gainera, herri arlo horretan oso bilduma dokumental gutxi zegoen —gehienak, aurreko mendeetan egindakoak edo XX. mendearen hasieran—, eta beraz, dokumentuen kontsulta luzea eta pisutsua zen. Bigarrenik, gaiarekin erlazionatuta zeuden arloen ikerkuntza eza zegoen. Azconak berak zioenez, ezinezkoa zen 1520. urterarte korrexidoreen zerrendarik egin eta gainera faltan botatzen zituen Hermandadeari buruzko ikerketak⁵². Bestalde, ematen zuen Batzarreen zerrenda nahiz eta nahiko zehaztua egon, askotan Erret Zedulak bezalako dokumentuek emandako zeharkako informazioaren bidez osaturik zegoen eta ez zuzenki emandako datuen bidez.

Zorionez, azken 30 urteetan horietako arlo asko ikerkuntza ugari izan dituzte eta erakunde ezberdinek, ikerlari berriekin batera, dokumentu ugariren transkripzio eta argitaratzea ekarri dute. Aipatutako gauzek beraz, lana asko mugatu egin zuten, nahiz eta Azconak, esan dugun bezala, analisi sakonik ez bilatu —agian kontestuak berak aukerarik ematen ez ziolako.

Urte gutxi batzutara, 1977 eta 1978 bitartean, EUTG-k, “Euskal Kulturaren Bigarren Kurtsoa” (“Segundo Curso de Cultura Vasca”) antolatu zuen momentuko ikertzaile nagusiak bildu zituelarik: Luis María Bilbao, Rafael Olaechea, Julio Aróstegui, José Ángel eta Fernando García de Cortázar, Andrés Mañaricúa, besteak beste, tartean ere Tarsicio de Azcona zelarik.

Azken honek, kurtsoan “El País Vasco durante la Guerra de las Comunidades”⁵³ izeneko txostena aurkeztu zuen, non argitaratutako eta eza-guna zen gai baten sintesia egiten zuen⁵⁴. Hala ere, bere lanak, gaiari sakontasuna eman ziezaioketen arlo berriak aztertzen zituen; horien artean, Donostiako udal bizitzari buruzko ikerketa bat, bi taldeetan azaltzen ziren partaideen analisisa, eta kalte-ordainen arazoa. Hori dena, azkenengo berrikuntzak kontutan harturik, 1975eko “V Simposio sobre Toledo Renacentista” nagusiena zelarik.

Artikulan, Azconak gatazka gipuzkoarra bi fasetan banatzen zuen, bata 1517-1518 urteetan eta bestea 1520-1521ean. Bien artean loturak bilatzen saia-

(52) *Ibidem*, 23 eta 27.orr..

(53) Aip.art. Dosierak Ereinek argitaratutako “Historia del Pueblo Vasco” 3 aleko lanean azaldu ziren. Lehenengoa 1978an azaldu zen eta beste biak 1979an.

(54) “síntesis de algo que tenemos publicado y suponemos conocido”. AZCONA, T. de, aip.art., 60.orr.

tzen zen, Ahaide Nagusiak aipatuz eta 1517. urteko Getariako Batzar Nagusietan eman zen botu sistemaren aldaketa kontutan hartuz. Bigarren fasean, korrexido-reak sortutako tirabirak aipatzen ditu, zekartzan neurri antiforalak aipatuz — Fernández de Echávarri eta Ramírez Olanorekin ez dator bat, beraz—, berau gatazkaren lehertzailea kontsideratuz, baina ez sakoneko arrazoia.

Ekarpenik nagusiena ordea, Donostiako udal bizitzaren ikerketan zetzan, zeina bere inguruan sortutako tirabirak aztertzen zituen. Zehazki, Azconak 1517. urtean, diruaren xahuketagatik sortutako istiluak aipatzen zituen. Interes mikrohistoriko hau, gaiaren nondik norako nagusienak argitu zitzaizketen bigarren mailako gertaeren analisisan zuen oinarri⁵⁵, nahiz eta gertaera konkretu honek eragin handiegirik izan ez, 1517an salatutako zinegotziak eta haien salatzaileak, Acuñaeren aldeko taldean kokatu baitziren. Kasu honetan beraz, Azconaren ustetan, “pudo más la solidaridad con la villa, que las diferencias internas dentro de la misma”⁵⁶.

Egileak oraindik ere ondorio kategorikorik ezin zitekeela eman onartzen zuen, berak arlo politikoa bakarrik aztertu zuela onartuz. Egindako aurreko lanean bezala, etorkizunean jorratu zitezkeen ikerkuntzetarako ardatzak ezartzen zituen, demografia, ekonomia edota Ahaide Nagusiak aipatuz⁵⁷. Beraz, bere artikulua ez zion arazoari aurrez aurre egiten, eta Gipuzkoa istilu horietara bideratu zituzten arrazoien azterketa sakona egiteke uzten zuen.

1979. urtean, José Ignacio Tellechea Idígoresek “Hernan Perez de Yarza, alcaide de Behobia. Documentos inéditos sobre las Comunidades y la Guerra de Navarra (1520-1521)”⁵⁸ argitaratu zuen. Ikerkuntzak berritasun metodologiko bat zekarren; hain zuzen ere, “contemplar los turbulentos años de 1520-1521 desde la óptica de un sujeto particular”⁵⁹, zegoen informazioari, Behobiako alkaidearen begirada gehituz; beraz, istilu horiek bizi izan zituen pertsonai baten ikuspegia ematen zuen. Dena dela, bere sarrerako ikerkuntza eta argitaratutako materiala garrantzitsua izanik, Tellechea

(55) “se trata de episodios secundarios, pero que pueden esclarecer los principales”. Ibidem, 77.orr.

(56) Ídem.

(57) Ibidem, 66, 69, 85 eta 86.orr.

(58) Aip.lan. Lehenago artikulua gisa: *BEHSS* 13 (1979), 45-190.orr. Argitalpen monografikoa erabiliko dugu.

(59) Ibidem, 4.orr. Kurtsibak gureak dira.

Idígorasek berak aipatzen zuen ez zuela bi taldeen eraketan parte hartutako faktorerik azaltzea lortu⁶⁰.

Horrek ordea ez du bere lana garrantzirik gabe zuten; aitzitik, beste ikuspuntu batetik aberasten du. Emandako aurrera pausoen artean, Butrongo Gomez —Yarzaren ahaide— edota Abendañoako Martín Ruiz soraureen jarre-raren argitze eta azterketa zen; bi horietan bereziki, monarkiarekin bizi zituzten erlazio onak kontutan hartuz

Metodologiari dagokionez, istiluak bizi izan zituen pertsona batetik gertaeren berreraikuntza egiteak, teorikoki behintzat, arlo ezezagun edota zalantzazkoen konponketan aztarnaren bat eman dezake; hala nola, pertsonaia edo hiribildu ezberdinek Acuñaaren alde edo kontra jartzeko zituzten interesak argitu. Dena dela, honek bere alde ilunak baditu, pertsona konkretuak izanik emandako informazioarekin tentuz ibili behar baitugu. Kasu honetan erregearen aldeko pertsona denez, datuak Hernaniko taldeak sortutako istiluen handitzea eta areagotzea ekarriko luke, Donostiaren alde eginez eta beraz ikuspegi baliotsu baina nahasia emanez.

Tellecheak argitaratutako lanaren ondoren ere, gaiak ikerketa gehiago ezagutu zituen. 1981ean Luis Fernández Martín izan zen bere ekarpena egin zuena⁶¹. Bere ikerkuntzak gipuzkoar eta gaztelar gatazken arteko independentzia frogatzen saiatzen zen, eta aurreko urteetan Azconak eta Tellecheasek egin zuten bezala, argitaratu gabeko dokumentazio ugari sartzen zuen.

Ikerlari honek korrejidoreari erreparatu zion, azken urteetako lanak kontutan hartuz⁶²; beraz, Azconak eskatzen zituen ikerkuntzetatik bat hartzen zuen bere lanaren ardatz. Fernández Martínek Hernaniko taldeak Acuñaaren izendapenaren aurrean izandako oposizioa, Gaztelan erregearen ordezkariak bizitako istiluak aipatu eta Komuneroen programan korrejidoreek zein leku zuten aipatzen zuen.

(60) “nada logro desvelar sobre el misterio de la composición de las dos facciones guipuzcoanas”, *ibidem*, 101.orr.

(61) Aip.la. Lan hau, Azcona eta Tellechea Idígorasen kasuan bezala, artikulua gisa *BHESS* 14(1980), 15-138.orr., atera zen lehenengo aldiz. Aldizkariaren sarreran komentario txiki bat egin zen (ikus *ibidem*, 8.orr). Besteekin bezala, argitalpen monografikoa erabiliko dugu.

(62) Zehazki GONZÁLEZ ALONSO, B.: *El corregidor castellano (1348-1808)*. Madrid, 1970, Instituto de Estudios Administrativos, eta BERMÚDEZ AZNAR, A.: *El corregidor de Castilla durante la Baja Edad Media*. Murcia, 1974, Universidad de Murcia.

Dena dela, ez zuen uste korrejidorearen arazoa Gipuzkoan gertatutakoaren arrazoi bakartzat har zitekeenik. Honekin batera, Tolosak eta Donostiak bizitako polarizazioa —lehenengoaren pisu politikoaren beherakadaren eta bigarrenaren gorenaldiaren inguruan—; horri, “el trasvase de villas de un grupo a otro, el cambio de objetivos, la desaparición de la preponderancia de los parientes mayores, la progresiva intensificación del poder real, fueron modificando la naturaleza y composición de estas Hermandades, hasta que en el verano de 1520 adoptaron ambos grupos la configuración que hemos dicho”⁶³ gehitzen zion.

Korrejidorearen inguruan ezarritako puntu ezberdinak aztertu ondoren, bere lanak gatazka aztertzen zuen, korrejidorearen inguruan izandako gertae-rak, Hernaniko taldeak komuneroen alde egindako ekintzak eta negoziazioen nondik norakoak aipatuz⁶⁴.

Bere ondorioak Azconaren antzekoak ziren; bi gatazkak independenteak izan zirela zioen, eta antzekotasun kutsu hori Hernanik eta Tordesillasek izan zituzten kontaktu eta lotura puntualen ondorioa izan zela⁶⁵. Baieztapen horretan sakondu egiten zuen, beti ere Hernani, nahiz eta botere zentralari behin eta berriz men ez egin, inolaz ere koroari ez ziola zuzenki eraso eta errespetuz inguratzen zuela aipatuz⁶⁶.

Egileak gehien azpimarratzen zuena gorte eta gaztelar agintarien jarrera zen; hain zuzen ere, gipuzkoar gatazkari irtenbidea emateko izan zuten diplomazia, Acuñaek ezarritako zigorrak bertan behera utziz. Bestetik orde, koroari jite hori mantentzea bere biziko garrantzia zuela aipatzen zuen, arazoa lehenbailehen konpontzeko; hain zuzen ere, muga ziurtatzeko premia zuelako, Frantzia momentu horretan egiten ari zen mugimenduak eta prestaketak zirela eta. Politika zapaltzaile batekin ezin zitzaion egoera gatazkatsu bati irtenbiderik eman; aitzitik, oposaketa handiago bat sortuko luke.

Urtebete beranduago, José Manuel Fernández Hierrok Komunitateen Gerran Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak izandako egoerari buruzko artikulua

(63) FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip.lan., 22.orr.

(64) Aipatzekoak ere Nikolas Insaustiren, komuneroen defendatzaile sutsuaren, inguruan ematen zuen biografia. Ikus ibidem, 26-31.orr.

(65) Ibidem, 21.orr. Egileak berak aipatzen duenez “no se puede, sin más, denominar como “comunero” a todo movimiento o actitud insurreccional que surgiera o ampliara su grito al socaire del fenómeno de las Comunidades”, ibidem, 5.orr.

(66) Ibidem, 74-75.orr.

argitaratu zuen⁶⁷. Honekin, gaztelar gatazkak zer nolako eragina eta ondorioak jakiteaz aparte, hiru euskal probintzia horien ikuspegi orokor bat eman nahi zuen sintesi lan baten bitartez eta azkenengo ekarpen historiografikoak kontutan hartuz⁶⁸. Bere lana beraz, Komunitateen eguneratze euskalduna zen, probintzia bakoitzean gertatu zena kontatuz. Gaztelar gatazkaren inguruko ekarpen historiografikoarekin hasten zuen bere ikerketa, ondoren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren XVI. mende hasierako egoerak landuz.

Behin arlo politiko, ekonomiko, instituzional eta sozialak garatuta, probintziaz probintzia Komunitateen gerran bizi izan zen egoera aipatzen zuen: Araba, Aguraingo Kondearen komuneroen aldeko jarrera oinarri zuelarik; Gipuzkoa, hiribilduek osatzen zuten bi taldeen arteko tirabirak pairatzen zituelarik eta azkenik, Bizkaia, zeinak egoera baretsua ezagutu zuen.

Gipuzkoari dagokionez, gertatutakoa komunitateekin erlaziorik ez zuela zioen; alegia, arazo ezberdinak zirela. Ildo horretatik jarraituz, ez zuen oso argi ikusten Hernani eta gaztelar altxatuen arteko erlazioa. Argudiorik nagusia, probintziak 1520eko azaroan bizi zuen baretasunean zetzan, hain zuzen ere, gaztelar gatazka bere gorenean zegoenean; gainera, behin Gipuzkoako tirabirak amaitu ondoren, Hernaniko taldean zeuden hiribildu ezberdinek jasotako tratuak aipatzen zituen; erret agintariek arazoa ez zuela komunitateekin erlazioa islatzen zuen tratua. Horrez gain, Hernanik islatzen zuen errebindikazio foruzaleari lekuko arazoak ere gehitu egin zitzaizkiola zioen⁶⁹.

Aipagarria da Fernández Hierro, azken datu horren inguruan mantentzen zuen hipotesia: zehazki, udalerrri batzuek izan zuten jokabide neutralaren inguruan eraikitako egoera, zeinak “adoptaron una postura de no compromiso con ninguno de los dos bandos en que se dividió la provincia”⁷⁰; bere ustetan

(67) En: VVAA: *Amigos del País hoy. Adiskideen Elkarte, gaur. Trabajos de ingreso presentados por los Amigos de Número de la RSBAP, Comisión de Vizcaya, años 1981-1982, vol.I*. Bilbao, 1982, Comisión de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, 189-233.orr. Egileak, euskal probintzietan hilabete horietan gertatutakoa kontatzen duen erlazio anonimo bat aipatzen du, zeina Historiako Erret Akademiaren Liburutegian dagoen. Erreferentzia: B.R.A.H. Bilduma Salazar, M.S.G., 49-443. Ikus Ibidem, p.230, nota 69. Erlazio hori eta berak eta ROLDÁN, J.M., (*El levantamiento del Conde de Salviatierra (1520-1521). Balance historiográfico (S. XIX-XX)*). Cuadernos de Sección Prehistoria-Arqueología, 4-ko separata, 37-73 orr.) bakarrik aipatzen dute. Ikus AZCONA, T. de San Sebastián..., aip. lan., 8 orr., 5. nota.

(68) FERNÁNDEZ HIERRO, J.M., art. cit., 189-190.orr.

(69) Ibidem, 222.orr.

(70) Ibidem, 215.orr.

beraz, ez zen probintzia osoa atxikitu. Nahiz eta zentzugabeko hipotesia ez izan, egile honen baieztapenek ez zuten argudio kritikorik eta susmo hutsean oinarritzen ziren. Beraz, datu falta zegoen hori frogatzeko.

Gaiaren inguruko azken ekarpenak, Komunitateen gaia aztertu dutenen autoreek egin dituzte, besteak beste. Zehazki, Joseph Perezek, Ignazio Deunaren jaiotzaren V. mendeurrenaren zergatia zela eta Donostiako kanpusean Deustoko Unibertsitateak antolatu zuen Simposiumean egin zituen⁷¹. Bertan, ikerlari frantziarrak bere tesian ezarritako ardatzak mantentzen zituen. Bere lan horren ondoren argitaratutako ikerketak kontutan hartuz, hiribilduak era batera edo bestera ezartzeko arrazoen analisi sakona egin behar zela zioen. Azken finean, bi taldeen egituraketa prozesua islatu beharko lukeen azterketa bat, bere ustetan gaztelar eta gipuzkoar arazoak ezberdinak baitziren.

Horren ildotik, Hernaniko taldearen eta gaztelar altxatuen arteko erlazioa, nahiz eta Acuña eta Donostiako taldeak besterik esan, nahiko egoeratsua izan zela zioen. Azconaren tesiekin bat zetorrelarik, honako ondorio hauetara iristen zen:

Alde batetik, zentralismoaren eta askatasun probintzialaren arteko talka baztertu egiten zuen, berarentzat, Donostiak “muestra igual apego a las tradiciones y fueros en el momento en que recibe al corregidor”⁷². Gainera, Nagerako Dukea epaile gisa izendatzea, bi taldeen onarpenarekin, Gipuzkoar eta Komuneroen arazoak ezberdinak zirela aditzera ematen zuen eta gainera, partikularren arteko arazoa zela, non Koroa ez zegoen zuzenki inplikaturia, baina bai interesatua, egoera politikoa zela eta⁷³.

Bestetik, egin behar ziren ikerkuntza sakonak aurrera eraman gabe, Gipuzkoako gatazka Komunitateekin ez erlazionatzea hobe zela zioen⁷⁴. Bere ondorioek beraz, ez zuten ikerkuntzen egoera bereziki aldatzen aurreko ikerkuntzekin aldaratuz.

(71) “Las relaciones de la Provincia de Guipúzcoa con la corona de Castilla durante la guerra de las Comunidades”. In: ORELLA UNZUÉ, J.L. (dir.): *El Pueblo Vasco en el Renacimiento (1491-1521)*. *Actas del Simposio celebrado en la Universidad de Deusto (San Sebastián) con motivo del Vº centenario del nacimiento de Ignacio de Loyola*. Bilbao, 1994, ediciones Mensajero, 381-390.orr. Simposiuma 1990.ko urrian ospatu zenez, J.I Tellechea Idígorasek idatzitako artikulua aipatu baino lehenago jarri dugu.

(72) *Ibidem*, 389.orr.

(73) *Ibidem*, 387.orr.

(74) *Ibidem*, 390.orr.

1992an José Ignacio Tellechea Idígorasek gaia berriz jorratu zuen, Luis Miguel Díez de Salazar zenari egindako omenaldian⁷⁵. Bere artikulua Zumaian 1521. apirilaren 13 eta 22 bitartean eginiko Batzar Nagusien transkripzioan zetzan. Hauen garrantzia, Donostia eta Hernaniko taldeek, hikamiken ondoren, elkarrekin egin zuten lehen batzarra delakoan datza; dena dela, bilera oraindik kontestua guztiz baretuta ez zegoenean egin zela kontutan hartu behar da, Aguraingo Kondea eta Komuneroak ez baitzeuden oraindik garaituak.

Horrez gain, ikerlariaren baieztapen batzuk aipatzekoak dira, Hernaniko taldea “claramente disidente y procomunero” dela aipatzen baitu eta gainera, “ciertamente hubo connivencia con los Comuneros de Castilla”⁷⁶, egon zela. Adierazpen nahiko harrigarriak, kontutan hartuz azkenengo ekarpenek, Perezenak alegia, kontrakoa ziotela.

Ikusi dugunez, bigarren fase honek gaiaren azterketa sakonago bat ekarri zuen, ardatz nagusiarentzat behintzat, metodologikoki dokumentazioaren transkripzioa aipagarriena izan daitekeelarik. Gipuzkoar gatazka beste ikuspegi batetik ikertzen hasi zen, komuneroekin izan zezakeen erlazioa zalantzan jarritz eta bere natura barne arazoetan zegoalaren ideia sustatuz. Hala ere, 80. hamarkadaren hasieratik aurrera, gaia oso gutxi jorratua izan zen, azken ikerkuntzaren ondorioak erakutsi diguten bezala.

II. Beste lan batzuen aipamena

Ondorengo lerroetan gaia zuzenki tratatu ez, baina haren inguruan nola-baiteko garrantzi eta aipamenak izan duten lanak aztertuko ditugu. Beraien artean, Komunitateak landu dituztenak, Gipuzkoako historiografian izan diren autore klasikoak, eta tokiko historia landu duten lanak, zeintzuek datu edota ikuspegi berriren bat eman duten.

a) *Gipuzkoar gatazka Komunitateen inguruan*

Bere garrantzia dela eta, lehenengo aipamena Manuel Danvilaren “Historia crítica y documentada de las Comunidades de Castilla” lanaren ingu-

(75)“Las Juntas Generales de Guipúzcoa. Zumaya, 13-22 abril 1521. Las Actas desconocidas de un momento conflictivo”. In: AYERBE IRIBAR, M^ºR.(ed.): *Estudios dedicados a la Memoria del profesor L.M. Díez de Salazar Fdez.*, vol.I: *Estudios histórico-jurídicos*. Bilbo, 1992, Euskal Herriko Unibertsitatea (aurrerantzean, EHU), 349-361.orr.

(76) Lehenengo adierazpena, ibidem, 350.orr.; bigarrena, ibidem, 351.orr.

ruan egin beharra dago⁷⁷, berari baitagokio gaiaren inguruko lehen sintesia. Simancaseko dokumentazioa eta ordura arte azaldutako artikulua eta lanak oinarritat hartuta, egileak Gipuzkoan eman zen kasuaren zergatia berme foralaren etenaldian oinarritzen zela uste zuen⁷⁸. Bere obran zehar gertaeren narrazioarekin batera hainbat dokumentu transkribitzen zituen: Acuñaeren izendapena, honen sententzia, Hernaniko konfederazio akta, Carlos V.ari Nagerako Dukeak Donostia eta Hernanitik bidalitako eskutitzak, eta Dukearen epaia, horien artean. Deigarrienetariko bat, Gaztelako kondestableak Martín Marquechori emandako agindua da; honetan, Bizkaia eta Gipuzkoara joateko esaten baitzaio lurralde horiek komuneroei egindako arma salmentei buruz ikerkuntzak egin ditzan⁷⁹. Gertaeren narrazioa, bere lan guztia bezala, ardatz kronologikoa zuen nagusitzat, nahiz eta batzutan beranduagoko dokumentuak aipatu⁸⁰. Aipagarria ere, dokumenturen bat guztiz transkribatzen ez duela; hala nola, Hernaniko konfederazio akta, non Ordizia, Mutriku, Azeria, Getaria, Zestoa, Zumaia, Eibar, Elgeta, Usurbil, Sayaz, Orio, Aiztondo eta Irungo ordezkarien izenak jartzten ez dituen⁸¹.

Maravall, Perez eta Gutiérrez Nietoren obrei dagokienez, aipagarriena Gipuzkoar kasuari buruzko aipamen txikia edo eza izango litzateke. Batetik, beraien lanak hari buruzko ikerkuntzarik gabeko garai baten barnean sartzen direlako eta garrantzitsuena, beraien ikerkuntzetan gipuzkoar kasua nahiko urrunekoa delako.

José Antonio Maravall de hiruetatik gutxien erreparatzen dion egilea. Gehienbat, bere obra ez zegoelako gertaeren narrazioan oinarrituta; aitzitik, bere lana Komunitateen fenomenoaren Aro Modernoko europar iraultzen tipologiaren artean kontestualizatzea baitzen, eta “precisar la línea de pensamiento político en la que se suceden y adquieren sentido los hechos de los comunes”⁸².

(77) Aip. lan. Gipuzkoar kasuari dagokionez XXXVI-XXXVIII(II-IV) aleak, 226-227, 599-604 eta 743-748; 182-190, 375-376, 494-504 eta 719-724; eta 131-132.orr. hurrenez hurren.

(78) Soraluzeri aipamen zuzena, non bere lanetik hartzen zuen interpretazioa. Ikus ibidem, XXXVI, 599-600.orr. Bertan ere Serapio Múgicaren artikulua aipatzen du.

(79) Ikus ibidem, XXXVII, 376.orr. Berak ere ez du transkribatzen baina bai erreferentzia eman eta bere edukina aipatu.

(80) Donostiaren “Noble eta Leial” tituluaren zatia kasu. Ikus ibidem, XXXVI, 227.orr.

(81) Berak dioenez. Ikus, ibidem, XXXVII, 185.orr.(183-186).

(82) Aip.lan., 15.orr.

Kontutan izanik Gipuzkoako kasua komunitateen arazoarekin alderatuz ezberdina izan zela, logikoa da Maravallek ez erreparatzea, eta ezta bere inguruko iritizik ematea. Dena dela, komuneroek Asturias, Gipuzkoa eta Bizkaiara bidalitako eskaerak aipatzen ditu; hain zuzen ere, lurralde horietan gertatzen zenaren inguruko informazioa lortu eta horien komunitateei atxikitzea bilatzen zuten eskaerak⁸³. Bestetik, daturik adierazgarrietako bat Sevilla eta Donostiako ekinaldi komuneroak aipatzean dator, penintsulan zehar izandako altxamendu ezberdinez aritzerako orduan⁸⁴. Aipamen nahiko bitxia da Donostia komuneroen aldeko saiakeren buru jartzea argi baitago itsas gune hori erregearen alde azaldu zela. Baieztapen hori ikerkuntza eta datu faltaren ondorio zela suposatzen dugu⁸⁵.

Gaia gehien tratatzen duena Perez da, non bere tesian korrejidorearen izendapena arazoan zergati nagusia zela argudiatzen zuen. Bere ustetan, gako-etako bat Erret Kontseiluaren partaide bat korrejidore izendatzea izan zen; hain zuzen ere, Medina del Campoko sutea gertatu ondoren eginiko izendapena, Kontseiluak bizi zuen izen ona kentzeko kanpaina bere gorenean zebilenean. Horrek, Perezen ustez, eztabaidak sortuko lituzke⁸⁶. Gainera, Komuneroen Batzarrak Gipuzkoarako eginiko beste korrejidore baten izendapena gehitu egin behar zaio, zeinak egoera okertuko zukeen.

Momentu hartan ordea, Perezek ez zuen uste Hernaniko Batzarrak komuneroen aldeko jarrera tinko bat mantentzen zuenik eta beraz, bien arteko erlazioa apropos egindakoa ez zela. Hernanik Hermandade berria egiterako orduan, ez zuen Komuneroei buruzko ezer aipatzen eta beraz, “relación puramente circunstancial [y de] falta de conexión real con las Comunidades de Castilla”⁸⁷, batez hitzegiten du. Gainera, Donostiak eta korrejidoreak erlazio horren inguruan egindako aipamenak, beraien interesen aldeko jokoia besterik ez luke islatuko, ustezko loturen sustapenak beraientzako onurak ekarriko lituzkeelako.

(83) Ibidem, 100.orr.

(84) Ibidem, 98-99.orr.

(85) Ibidem, 67.orr., 89. nota, non gipuzkoar kasua aztertzeo zegoela zioen.

(86) PÉREZ, J.: *La revolución...*, aip.lan., 413.orr. Baieztapen hau, hein batean bere artikuluan kontrajarria azaltzen da, “la resistencia a recibir al corregidor no explicaría por sí sola que se desencadenara una guerra civil en la provincia” esaten baitu. Ikus PÉREZ, J.: “Las relaciones...”, aip.art., 389.orr.

(87) PÉREZ, J.: *La revolución...*, aip.lan., 414.orr.

Hala ere, ez zuen Gipuzkoan eman zen gatazkaren benetako zergatia adierazten. Egia da hainbat arrazoi baztertzeko zituela, hala nola itsas eta barneko udalerrien arteko borroka, taldeetan bi munduetako hiribilduak azaltzen zirelako. Diagnosi falta hau historiografia hutsune baten isla zen, Gipuzkoar historiaren XVI. mendeko datu gehiago izatearen beharra aipatzen baitzuen; hala, arazoa hobeto esplikatu zitekeelako⁸⁸.

Perezek Komunitateen inguruan egindako geroagoko ikerketek⁸⁹ ondorio berdintsuak mantentzen jarraitzen dituzte, Azconaren iritzia bereak eginez. Hala, gatazka sustatu zuen gertaera korrexiadorearen izendapena izanik, tentsioaren garatze prozesuan ezaugarri ezberdinetako zergatiak eragina izango zuten ideien alde azaltzen da; Ahaide Nagusien eta hiribilduen arteko tirabirak, merkatal eta industri zentruen arteko talkak, eta bere tesian baztertzeko zuten itsas munduko eta barneko populazio guneen arteko liskarrak⁹⁰. Aipagarria da Probintzia eta Koroaren arteko talka hori bazterketa, bere ustetan Donostia eta Hernaniko taldeek Gipuzkoako pribilegioak defendatzen zituztelako.

Egileen aipamen eskasiaren inguruan, Gutierrez Nieto Maravallengandik gertuago koka dezakegu Perezen kasutik baino. Bere gaiaren ardatz nagusia komunitateek izan zuten jauntxoaren aurkako ezaugarria aztertzea zenez, normala da euskal kasuari dagokionez Arabako kasuan barneratzea, bertan izan baitzen ezaugarri horiek zituen liskar bakarra, Aguraingo Kondea protagonista nagusia zelarik. Dena dela, istilu hau aipatzerako orduan, Bizkaia eta Gipuzkoako kasuei ere, era orokor eta txiki batera so egiten die. Harritzekoa da lehen kasuan Hermandadearen banaketa bat bezala ikustea, beti ere oñaztar eta ganboatarren erlazioa nabarmena delarik⁹¹. Gipuzkoako kasuan, Perezen tesiaren kontra, arazoa kostaldeko merkatal guneen eta barneko nekazal guneen arteko tirabirak ikusten zituen.

b) Gipuzkoar egile klasikoak

Historiografia klasikoaren artean, hain zuzen ere XVI-XIX mendeko Garibay, Martínez de Isasti, Larramendi, Camino edota Gorosábel bezalako

(88) Idem.

(89) *Los Comuneros*. Madrid, 2001, La esfera de los libros, 155-158.orr.

(90) Ibidem, 156.orr.

(91) Zehazki Bizkaiaiko kasuan “se presentó como escisión de la hermandad, debida a la vinculación de los “parientes mayores” a uno de los dos bandos tradicionales de oñacinos y gamboinos”. GUTIERREZ NIETO, J.I., aip.lan., 179.orr.

egileak biltzen dituen, aipagarriena aipamen eza edo eskasia da. Gehienak, Gipuzkoako Historiaz hitzegiterakoan, garai hartan bestelako garrantzi zituzten gaiak aipatu zituzten, hala nola, gipuzkoarren noblezia, kaparetasun uni-bertsala, odol garbiketa, etab⁹².

Beraz, lerro hauetan lantzen dugun gaiak oso aipamen gutxi jaso izan ditu. Orokorrean, ondorengo parrafoetan aipatuko diren egileek gipuzkoar gatazka Nafarroaren inguruko gerrateen kontakizunetan sartu izan dute. Aipatu duten datu bakarra Donostiak 1522. urtean jasotako “Noble eta Leial” tituluaren inguruko dokumentuan aipatzen diren merituetan datza, eta beraz, horrek aipatzen dituen datuak besterik ez dituzte lantzen. Bertan, hiribilduaren meritu ezberdinen artean, Komunitateen gerran mantendutako jarrera aipatzen delarik⁹³.

Horretan erreparatu zuen lehen autorea Lope Martínez Isastikoa izan zen, zeinak itsas hiribilduaren erregearen aldeko jarrera aipatu, zeinak nahiz eta beste pertsona batzuen aldetik aurka egin, Acuña korrexidoretzat onartu zuen⁹⁴.

(92) Hontarako DÍAZ DE DURANA, J.R.: “Historia y presente del tratamiento historiográfico sobre la Lucha de Bandos en el País Vasco. Balance y perspectivas al inicio de un [sic] nueva investigación”. En: DÍAZ DE DURANA, J.R. (ed.): *La Lucha de Bandos en el País Vasco: De los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*. Bilbo, 1998, EHU, 21-46.orr.

(93) Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 1/11/40, 1 r - v. fol., non honako hau aipatzen da: “... el año Passado De quinientos y veinte y uno al tiempo de los mouimientos Y alborotos que Vbo en estos Reynos El conçejo De la dicha villa y vecinos della fueron vno de los Primeros Pueblos que se señalaron y mostraron en nro seruicio como fieles y Leales subditos y Para lleuar adelante el firme propositto se juntaron todos en la Yglesia mayor de la dicha villa y juraron sobre la Cruz y los santos evangelios El Estar venir y morir en nro seruicio Y Por ninguna Cossa que ynterbiniese de no se juntar ni allegar a los que se llamauan Y dezian de Comunidad que andubieron en nro desseruicio y fecho el dicho juramento lo pregonaron públicamente por todas las calles de la dicha villa lo qual ellos conseruaron Y Guardaron muy Cumplidamente= Y aunque fueron requeridos por algunas çiudades de las que estauan en nro desseruicio Y Por Comunidad Y que fuesse de su opinion y ymbiasen Gente a les fauorezer Haziendoles Grandes Prometimientos a los vecinos de la dicha villa, nunca los pudieron atraer a lo que quisieron mi mudar de su proposito antes estuuieron muy fijo en nuestro seruicio Y perseuerando en ello, siendo Hechado de la Prouinçia de Guipuzcoa El Licenciado Acuña del nro consejo Real que en el dicho tiempo embiamos a la dicha Prouinçia Por corregidor= la dicha villa lo Reçiuió y defendió Y estubo en ella asta tanto que le embiamos a mandar que viniessse a Residir en el consejo porque ansii Cumplia nro seruicio...”

(94) *Compendio Historial de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa (1625)*. San Sebastián, 1850, Ignacio Martín Baroja, (faks. arg. Bilbo, 1985, Amigos del Libro Vasco, 2 ale). Gipuzkoar gatazka, II.alea, 313.orr.

Caminoren lanean, zeina lehenbiziko aldiz 1870. urtean osorik argitaratu zen⁹⁵, egileak orokorrean, aipatutako dokumentuan azaltzen dena esplikatzen du; hau da, Donostiak gaztelar altxatuei batzeko hainbat deialdi jaso zituela, baina hiribilduak, honen aurrean Santa Maria elizan batzarra egin eta bertan, bizilagunek erregeari leial izaten jarraituko zutela zin egin zutela; beraz, komuneroekin ez zutela bat egingo. Caminok ere, Tolosako taldeak Donostian eginiko erasoak aipatzen zituen eta nola kostaldeko populazio gunea horregatik saritua izan zen. Aipamen guzti honetan, deigarriena komuneroen alde egondako pertsonen izenen uztea da, beraien ondorengoak ez baitzituen lotsarazi nahi⁹⁶. Esaldi honek, espainiar berrezarpenak eman zuen irudia islatzen du. Hain zuzen, Danvilak ematen zuena eta liberaleei kontrajarria zegoena. Beraz Komunitateak programa politiko eta idealik gabeko mugimendua, zeina “provocado por unos pocos nobles con bastardas intenciones”⁹⁷ zegoen.

Ramírez Olano eta González de Echávarri bere lanean kritikatzeko duten Soralurerean “Historia General de Guipúzcoa” lana 1870. urtean azaldu zen. Hemen, egileak 1520ko gertaerak, Donostiari eman zitzaizkion fabore eta pribilegioen inguruan izandako gertakari bat bezala aipatzen zuen. Isastik bezala, Donostiari eginiko erasoak ere aipatzen zituen: “algunos de los demás pueblos y forasteros que (...) se presentaron frente á sus muros. Ya que no pudieran asaltarlos y tomar posesión, desahogaron su furor cometiendo talas y destrozos en los alrededores, que el Rey-Emperador le indemnizó cinco años después”.

Soralurerean lanaren garrantzia gertaeren interpretazioan datza, bera izan baitzen berme foralen etenaldia aipatzen lehena, eta ondorioz, horren inguruan suertatutako eztabaida eta teorien erantzule zuzena. Zehazki, egileak 1520ko istiluetan “ejerciô mucha influencia la *suspensión de las garantías forales* pedida á las Juntas por el Monarca; pero en realidad casi impuesta para el caso contrario, por lo que se dejaba entrever” dio. Bere ustetan, Donostiaren portakarak, kontraeraginkorra izan zen, nahiz eta pribilegioak lortu, honek probintziako beste herriek harenganako etsaitasuna sustatu baitzuen⁹⁸.

(95) CAMINO Y ORELLA, J.A.: *Historia civil-diplomático-eclesiásticas anciana y moderna de la ciudad de San Sebastián con varias noticias particulares pertenecientes a la provincia de Guipúzcoa*. San Sebastián, 1963⁴ (1870), Ed. del Excmo. Ayuntamiento de la ciudad de San Sebastián, (Fausto Arocenaren sarrera, notak eta hitzatzea) , 93-94.orr. Lana 1780.urtekoa da.

(96) Esaldiak, ibidem, 93.orr.

(97) GUTIERREZ NIETO, J.I., aip.lan., 83.orr.

(98) SORALUCE Y ZUBIZARRETA, N. de, aip.lan., I. alea, 188-189.orr. eta II. alea, 215.orr. Bigarren honetan Carlos V.ak azaroaren 11an, berme foralak eteteko aginduari buruz hitzegiten du, informazio gehiagorako Igo alera bidaliz.

Carmelo Echegaray-k, bere “Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa” obran, korrexidoreari zati bat eskaintzen zion⁹⁹. Acuñaeren kasuaren inguruan sortutako tirabirak izendapenak zekartzan ezohiko neurriengatik suertatu zirela zioen; hain zuzen ere, Hermandadearen alkateak eteteko, pertsona susmagarriak erbestertzeko eta Korrexidoreen Kapituluaren ekarpenek zekarten ahalmenek. Horrek guztiak, egilearen ustetan, historiografia foruzalearen adibide gisa, jurisdikzioaren inguruko foru xedapenen eternaldia zekarren eta ondorioz, korrexidoreari botere handiago bat ematen zion probintziaren maila politikoan bere jokaera areagotzeko; horrek beraz, Gipuzkoak zituen pribilegio eta usadioen aurka joatea zekarren, eta ondorioz, normala zen Acuñaerenganako mesprezua sortzea.

Dena dela, Echegarayren Seonaerekiko jarraipena ez zen guztiz osoa. Zehazki, egile azpeitiarrak, bigarrenaren ondorioen kontra, ez zuen uste Hernani garaile irten zenik; aitzitik, bere jarrera “quedó materialmente anquilada por la voluntad decidida y el poder inmenso del Emperador”. Gainera, 1520. urtean sortu ziren istiluak, erregea eta probintziaren arteko erlazioen historian salbuespen bat izan zen arazoak era diplomatiko batetara konpontzen saiatzen baitziren¹⁰⁰.

d) 70ko hamarkadatik aurrerako gipuzkoar historiografia

Hemen Pablo Fernández Albaladejo aipatu beharra dago, berau izan baitzen, probintziaren barne logikaren ikuspegitik egin den analisi hoberenetariakoaren egile, bere Aintzin Erregimenaren krisiaren inguruan eginiko lanean¹⁰¹. Nahiz eta korrexidorea arazoaren arrazoi nagusitzat —baina ez oinarritzotzat— aipatu, ikerlaria haratago doa; Errege Katolikoek antolatutako sistema politikoaren inguruan sortutako gatazkatzat zuen. Hala, nahiz eta bestelako arrazoiak aipatu —Ahaide Nagusiak eta Getariako Batzar Nagusien botu sistemaren aldaketaren inguruko tirabirak, besteak beste—, bere ustetan, gatazka arazo berri baten aurrean gaudela adierazten du; hain zuzen ere “cómo resistir las decisiones con las que el (...) Estado castellano trataba de ordenar la eco-

(99) San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1924 (faks.arg., San Sebastián, 1984, Diputación Foral de Guipúzcoa), 89-116.orr. Acuñaeren kasua, 95-97.orr.

(100) Ibidem, 97.orr.

(101) FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833. Cambio económico e historia*. Madrid, 1975, Akal, 101-110.orr.

nomía y la política provinciales”¹⁰². Honen ildotik, Errege Katolikoek ezarri zuten sistema politikoa Donostiari on egin ziola eta beste hiribilduekiko eskaera fiskalak areagotu egin zituela pentsatzen zuten.

Oinarritzat, korrexidorearen kontra azaldutako udalerriek berrikuntza fiskalak eta erregulazio merkantilistaren oinarriak pairatu zituztela zioen; bestalde, Donostiaren eraginetik urrun zeuden hiribilduek bere iritziaren alde azaltzea, Oñatiko Kondeak —Carlos V.ren aliatuak— Deba bailaran zuen kontrolaren isla izan zitekeela argudiatzen zuen¹⁰³. Dena dela, ez zuen beste faktore askoren eragina baztertzeko. Besteak beste, Donostiak probintziaren bizitza politikoan zuen geroz eta pisu handiagoa, Tolosa eta Seguraren kalteetan zela eta horrek nolabaiteko isla izan zezakeela zioen.

Aipatu dugun bezala, beste lan askok, gaiaren hutsune historiografikoak zeharka argitu dituzte, aipagarrienak korrexidorearen inguruan Sebastian Insaustik eta Jose Luis Orellak egindako lanak direlarik¹⁰⁴. Lehenengoak bere artikulua Azconaren lanaren eraginez idatzi zuen, XV eta XVI. mendeetan Gipuzkoako korrexidoreei buruzko ikerkuntza interesgarria eginez, Acuñaeren kasua barne zegoelarik. Lerro horietan, karguaren nondik norakoak aztertzen zituen horien artean, ezaugarriak, betebeharrak eta bere inguruan suertatutako tirabirak zeudelarik.

Acuñaeren kasuari dagokionez, Insaustik foruen kontrako mandaturen bat bezala ikusten zuen. Arrazoiatariko bat, Hernanik korrexidorea berria ez onartzeko, honen izendapenak zekartzan bi zedulen indargabetzearen argudioa zen; hain zuzen ere, Probintziari korrexidoreen izendapenetan lehentasuna ematen zioten bi dokumentu. Honek, egilearen ustetan, errege berriaren politika —pribilegio eta usadio probintzialen aurkakoan— isla zezakeen. Bigarrenik, korrexidore berriak —honek eman zuen epaian oinarrituz—,

(102) Ibidem, 108-109.orr.

(103) Ibidem, 109.orr.

(104) INSAUSTI, S.: “El corregidor castellano en Guipúzcoa (siglos XV-XVI)”. In: *BRS-BAP*, XXXI (1975), 3-32.orr.; ORELLA UNZUÉ, J.L.: *El delegado del gobierno central en Guipúzcoa. Estudio histórico-jurídico del corregidor guipuzcoano durante el reinado de Isabel la Católica (1474-1504)*. San Sebastián, 1987, Universidad de Deusto; IDEM: “Estudio histórico-jurídico del corregidor guipuzcoano durante el reinado de Enrique IV (1454-1474)”. In: IGLESIA FERREIRÓS, A. y SÁNCHEZ-LAURO, S.(eds.): *Centralismo y Autonomismo en los siglos XVI-XVII. Homenaje al Profesor Jesús Lalinde Abadía*. Barcelona, 1989, Universitat de Barcelona, 295-318. orr.; eta IDEM: *Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530)*. Donostia, 1995, GFA-GBNN. Insaustiren lana aipatuko dugu, Acuñaeren kasua tratatzen baitzuen. Ikus INSAUSTI, S. de, aip.art., 18-26.orr.

Tolosa, Segura, Ordizia eta beraien taldeko hiribilduek, alkate eta errexidoreak aukeratzeko zituzten eskubideak bertan behera uzten zituen hornidurak zekartzala zioen¹⁰⁵. Hauek ere eragin garrantzitsua zuten lurraldetasunean, hiribilduen jurisdikziopean zeuden guneak beste batzuetara pasatzeko boterea omen zuten eta. Ondorioz, korrexidoreak udal eta probintziako gaitasunen gaitetik kokatzen zen eta beraz, bere jurisdikziopean lehenago ez zeuden arloak geratzen ziren, Acuñaeren izependapenaren aurka sortutako iritzien, sorrera hor zegoelarik.

Dena dela, benetako arrazoien zergatia argitzen ez zuela zioen, eta ez zuela argibide errazik Donostia eta bere aldeko otzantasun portaera argitzeko, kontutan harturik “siempre se ha visto defender con empeño las prerrogativas municipales que se derivan del fuero de población”¹⁰⁶. Beraz askatasun probintzialen defentsaren aldeko borroka hori baztertu egiten zuen.

Korronte historiografiko berriek, gehienbat “eraketa probintziala” eta Ahaide Nagusien nondik norakoak ikuspegi politiko eta antropologikoetatik aztertzen dutenek, hein batean behintzat, gaiaren inguruko argilunen bat konpondu dute.

Alde batetik, Ahaide Nagusien leinuekin erlazioatutako ikerkuntzetan, ekarpenik nagusia José Antonio Marín-ek egin zuen bere doktorego tesian¹⁰⁷. Zehazki, Oñaz-Loiolatarren kasua aztertzerako orduan, ikertzaileak nahiz eta datu eskasiaren ondorioz baieztapen tinko bat ezin zitekeela egin ohartarazi, dokumentazioak jarrera aiduru bat izan zutela aditzera ematen duela adierazten zuen, gertaerak gertatu ahalako jokabide bat izan zezaketelarik. Arrazoa, Oñaz-Loiolatarren kasuan behintzat, Azpeitiako kontzejuarekin izandako tirabira dezentetan dago; hain zuzen ere eliz patronatuekin erlazioatutakoa. Horrezaz gain, beraien maiorazkoaren eraketa prozesua guztiz finkatuta ez zegoenez, nolabaiteko aktuazio nagusirik izatea komeni ez zitzailea aipatzen du. Eta hori egitekotan —Ahaide Nagusi bezala, “talde” bezala—, erregearen aldeko jarrera mantenduko zutela, zeinetik menekotzat zuten haien burua eta gainera, haren aldeko zerbitzuepean jarriz, nolabaiteko saria jasotzeko esperoan egongo zirelako.

(105) *Ibidem*, 23.orr.

(106) *Ibidem*, 25.orr.

(107) “*Semejante Pariete Mayor*”. *Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariete Mayor de Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI)*. Donostia, 1998, GFA. Gipuzkoar arazoa, 277-279.orr.

Ikertzaileak ere ez zuen ahazten Loiolako Iñigok izan zezakeen garrantzia gatazkari irtenbideren bat ematerako orduan. Bere ustetan, gerora Gipuzkoako patroï bihurtuko zenak, Nagerako Kondearen delegatu gisatzat jokatu zuen, Ahaide Nagusi batzuen orubeko kide baino¹⁰⁸.

Bestalde, “Probintzia”ren egituraketa prozesua aztertzen duten obren artean, Susana Truchuelok aipamen txiki baina interesgarria eman zuen¹⁰⁹. Egileak, Insaustiren teoriari jarraituz korrexidorearen boterearen nagusitzea aipatzen du¹¹⁰, eta horretan berretsiz, gatazka “botore zentralekin izandako gatazka zorrotz” bat zela aipatzen zuen; bertan, Donostiak Gipuzkoako bizitza politikoan erret boterearen sustapena defendatzen zuen, eta Tolosak berriz, “una relación jerárquica entre los distintos poderes basada (...) en el mantenimiento, conservación y observación de la incipiente *constitución* provincial”¹¹¹, ordenantzetan eta probintziaren pribilegioetan oinarriturikoa. Azken finean, monarkia berriaren testuinguruan, “probintziako askatasunen” inguruko interpretazio ezberdinen arteko tirabirak; koroarekin ezartzen ari zen erlazio berri baten ondorioz sortzen ari zen lurralde egituraketa baten aurrean, hiribildu batzuen eta besteen arteko interesen borroka¹¹².

Berrikuntzak ordea, ez dira bakarrik arlo horietan eman. Lekuko historiak gaur egun duen garrantziak ere isla izan du, Gipuzkoako gatazkarekin erlazionatua baina nahiko ezezaguna ziren arloak argitara emanez. Horien artean aipagarriena Eibarri buruz Javier Elorza Maiztegi eginiko ikerkuntza¹¹³.

(108) *Ibidem*, 278.orr.

(109) TRUCHUELO GARCÍA, S.: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Donostia, 1997, GFA, 109-110.orr.

(110) Hala ere, botere gehiago izate hori, Korrexidoreen kapituluan eta Alkateak jarri edo botatzeko ahalean jartzen du besteak beste, Insaustik baztertzen duen teoria delarik. Ikus *ibidem*, 109.orr.

(111) *Idem*.

(112) Berak aipatzen du, “el marco de relaciones establad[as] entre la Provincia y la Corona basado en la conservación de los privilegios y en la tutela ejercida por el monarca y sus delegados, que identificaban a los cuerpos que integraban el entramado jerárquico castellano” jokoan zegoela. *Ibidem*, 110.orr., 255. nota.

(113) *Eibar: Orígenes y Evolución, siglo XIV al XVI*. Eibar, 2000, Eibarko Udala, 307-332.orr. gaztelar eta gipuzkoar gatazkak, *ibidem*, 310-313 eta 325-328.orr. Hein berean, Donostiaren inguruan ipiniko monografiak aipa daitezke, nahiz eta Fernandez Albaladejoren ideia nagusienak aintzat hartzen dituzten. Hori dela eta, aipatu besterik ez ditugu egingo. Ikus: ROLDAN GUAZ, J.M.: *San Sebastián: 1526-1795: La plaza fuerte*. In: GÓMEZ PIÑEIRO, F.J.; SAEZ GARCÍA, J.A.: *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia, 1999, Ingeba, 84-95 orr., bereziki 84-86 orr.; eta IMIZCOZ, J.M.: *Hacia nuevos horizontes: 1516-1700*. In: ARTOLA, M. (arg.): *Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia, 2000, Nerea-Donostiako Udala, 87-180 orr., bereziki 104-106 orr.

Dena dela, arlo honek bere aurrekariak izan zituen. 1969. urtean Gonzalo Manso de Zúñigak “Los Comuneros Alaveses”¹¹⁴ izenburu zuen artikulua aipagarriena izanik. Bertan, dokumentuen transkripzioa ematen zen eta haiek islatzen zuten datuen aipamena. Horietako dokumentu batek, Eskoriatzan 1521eko apirilean sortutako tirabirei egiten zien erreferentzia. Egia esan, ez zen zehazki Gipuzkoako egoerari buruzko datua¹¹⁵, baina haren lurraldean gertatutako gertaerak jasotzen zituen.

Baina Javier Elorzaren lana da berrikuntzarik nabarmenak ekarri dituen. Hain zuzen ere, jakinik XV. mendetik Deba bailarak armekin zuen lotura eta garrantzia ikusirik, inork ez baitzuen planteatu ordurarte zein izan zitekeen, Komunitateen kontestua aprobetxatuz, armekin lotura zuten hiribilduen pape-
ra. Ikertzaile honi zor zaio aurrerapausorik nagusia, bera izan baita hori aipatzen lehena. Zehazki, Eibarren kasuan arma merkatariek nolabaiteko garrantzia izan zutela ageri da, hiribilduko bi merkatariek komuneroei armak saldu egin baitzieten¹¹⁶.

Bestalde aipagarria da bere ikerkuntzan, Probintziak garai hartan — korrexidore berriaren izendapenarekin— agertzen zuen bildurra; hain zuzen ere, bizi zen gerra kontestu horren aurrean, Gipuzkoatik at jendea ateratzeko ekar zezakeen boterearekiko beldurra. Elorzak gainera, baieztapen harrigarria ematen du, Probintziak Acuñaekin bere lehen korreximenduan arazoak izan zituela esanez¹¹⁷.

Egile horrek berak, beste aurrerapausu batzuk eman ditu, Gipuzkoako gatazka alde mikrohistorikotik argituz. Hala, Eibarren kasuan eginiko pertsonen azterketak, oligarkien parte hartzerik ez dagoela aipatzen du, Hernaniko taldean azaltzen direnen artean hiribilduko “honrado”rik ez zegoela aitortuz,

(114) *BRSVAP* XXV (1969), 359-367.orr.

(115) Gogora dezagun Leintzeko harana ez zela Gipuzkoan 1556. urterarte sartu.

(116) ELORZA MAIZTEGI, J., aip.lan., pp.325-328. Horren inguruan ere, ikus AZPIAZU, J.A.: *Picas vascas en Flandes. Historias de armas de Euskal Herria*. Donostia, 2002, Ttartalto, 77 eta 91.orr.

(117) “A pesar de ello y de las amenazas que (...) remitió (...) el Consejo Real para que fuese admitido como corregidor, y vista la mala experiencia tenida alrededor de una década antes con el mismo Acuña y con otros como el corregidor-militar *Sancho Martínez de Leiva* o con Álvaro de Porras que en 1491 intentó relevar a los alcaldes elegidos por las villas, una buena parte de pueblos de la provincia no aceptó este nombramiento...” ELORZA MAIZTEGI, J., aip.lan., 310.orr. Guk dakigunez, Probintziak Fernando erregeari 1508. urtean, Acuña korrexidore zenean, honen lanari buruz, eskutitz laudagarri bat igorri zion. Ikus ORELLA, J.L.: *Instituciones...*, aip.lan., 296.orr.

eta ezta kontzejuko kargurik ere. Honen inguruan bere ondorioa Eibarren protesta oso txikia izan zela dio, kontestu gaztelar eta Gipuzkoan bizi zen botere hutsunearen ondorio¹¹⁸.

e) *Iturriak*

Azken urteotan euskal historiografiak bizitako hobekuntza eta bultzada behin baino gehiagotan aipatu izan dugu lerro hauetan. Gaiari dagokionez, berrikuntzak ez dira ikerkuntza lanetara bakarrik hedatzen. Horrez gain, iturri dokumentalen argitalpena ere oso kontutan hartu beharreko arloa da. Egia bada Azcona, Fernández Martínek eta Tellechea Idigorasek berebiziko aurre-rapen dokumentalak eman zituztela, hauek gehienbat Simancasetik zetozen dokumentazioan zuten bere jatorririk nagusia. Orain arte, inork ez dio erreparatu udal agiritegiek izan dezaketen dokumentazioan. Eta azken argitalpenak ikusirik, kontutan hartu beharreko arloa dela argi dago.

Azken lan monografikoak azaldu zirenean, inork ezin zuen ukatu haiek zuten eragozpenetako bat, gipuzkoar —eta orokorrean euskal— agiritegiek bizi zuten egoera kaxkarra zenik, bai antolakuntza aldetik, bai inbentario aldetik —oraindik ere baten batek hala dirau—. Horregatik agian, inork ez zien erreparatu udal iturriak eta hauek izan zezaketen erabilgarritasun eta probetxamenduari. Gehienbat, Nagerako Dukeak bere sententzian argi utzi zuelako hilabete horietan sortutako dokumentazioa erre egin behar zela, eta gainera Acuñaaren kontra azaldutako hiribilduek, badaezpada ere, informazio hori deuseztuko zutelako.

Zorionez, gaur egunean Eusko Ikaskuntzak darabilen proiektua, Erdi Aroko udal dokumentazioa argitaratzeko saioa, fruitu gutxi baina interesgarriak eman ditu. Argitaratutako aleetan gaiarekin erlazioatutako 9 dokumentu ikus ditzakegu. Arrasateko eta Soroluzeko agiritegiek, adibidez, 7 idatzi gordetzen dituzte, denak probintzia mailarekin zerikusia dutenak¹¹⁹.

(118) ELORZA MAIZTEGI, J., aip.lan, 311.orr.

(119) HERRERO, V.J.; ACHÓN, J.A. eta MORA, J.C.: *Archivo Municipal de Mondragón, tomo V. Libro 2. Copia de privilegios antiguos (1217-1520)*. Donostia, 1998, Eusko-Ikaskuntza, 210-212. dok. 210 eta 212. dokumentuak transkribatu gabe aurkitzen dira beraien egoera kaxkarra dela eta. Biak ere, Alonso Franco korrejidoreak (1464-1466) emandako epaiekin erlazioatutako erret eskutitzak dira. 211. dokumentua, Karlos I.ak probintziari bere alde leialtasuna eskatzen dio, eta Komunitateen alde ez joateko. Soroluzeri dagokionez ELORZA MAIZTEGI, J.: *Archivos Municipales de Eibar (1409-1520) y de Soroluz/Plasencia de las Armas (1481-1520)*. Donostia, 2000, Eusko-Ikaskuntza, 23-26.dok. 118-126 orr.

Bigarren agiritegi horretan gordetako dokumentuetan, Burgoseko Batzarrak Probintziari zuzenduriko informazioa ikus dezakegu, Carlos I.aren irteerak sortutako istiluen aurrean prest egon eta Koroa defenda dezan; bigarren dokumentua, Gipuzkoari Tordesillaseko Batzarrari kasurik ez egiteko eskatzen zaio. Horrek guztiak, Probintzia Gaztelako gertakarien eragina jasatearen beldurra erakutsi besterik ez du egiten. Soraluzen gordetzen diren bes-telako dokumentuak, Acuña-ren izendapena eta Azkoitian Hernaniko Batzarrak egindako errepartimendua dira.

Bestalde, Elgetak bi dokumentu gordetzen ditu. Hauen kasuan aberastasu-n handiagoa dute mikrohistoriaren aldetik, eta beraz gaiaren zehaztasun eta lekuko gertakariak ezagutzerako orduan erabilgarritasun handia dute, Elgetako kontzejuari zehazki bidalitakoak baitira. Bata, horrek mantendu behar duen jarrerari buruzkoa, eta bestea, hiribilduari istiluen ondorioz eman eta bete behar zituen aginduak¹²⁰.

Dena dela, kontutan hartzekoa da erdiaroko iturrien argitalpenaren irizpideak urteen buruan aldatzen joan direla. Hasiera batean XV. mende bukaeran —90ko hamarkadan jarri dezakegu muga— bazuten beraien itxie-ra puntua, gaur egunean argitaratzen diren agirien dokumentazioak, 1520. urtean ezarri ditu bere mugak. Horrek, hein batean behintzat lana asko erraztu du, baina ezin dugu ukatu gaia aztertzekeo erdizkako lana dela. Hala, gatazkaren lehengo zatia jorratu daiteke baina 1521. urteko lehen erdialde-an sor zitezkeen arazoak ezagutzeko agiritegi horietara joan beharko ginateke, ezin baitugu ahaztu momentu horietan ere tentsioa eta istituak nabariak zirela.

III. Ondorioak

Lerro hauen bitartez euskal historiografiaren egoera ona dela eta, gaiarekin zerikusia duten arlo batzuk orokorrean behintzat, landuak izan direla ikus-tea posible egin dugu. Hor ditugu Orella, Marín edo Elorzaren kasuak. Dena dela, oraindik ere hainbat hutsune nabariak direla onartu beharra dago

Lehenengoa, gatazka beraren analisia. Gaur egunean ematen ari diren ekarpen teorikoen ildotik, Gipuzkoan eman zena zer nolako arazoa izan zen

(120) AYERBE IRIBAR, M^a.R. eta ELORZA MAIZTEGI, J.: *Archivo Municipal de Elgeta (1181-1520)*. Donostia, 2001, Eusko-Ikaskuntza, 95 eta 96 dok., 313-318 orr.

jakiteke daukagu. Besteak beste, zer nolako espedienteak eman ziren edo kodifikatutako portaerak martxan jarriak ziren¹²¹.

Korrexidoreari dagokionez, XV. mende amaieratik —kargua Gipuzkoan instituzionalizatu egiten denetik, alegia— 1520. urterarte sortutako gatazka eta istiluen erlaziorik ez dugu. Ez dakigu zer nolako eztabaidak sortu ziren Probintzia eta korrexidorearen artean; azken finean, Acuñaeren kasuak nolabaiteko aurrekaririk jakiteko beharrezkoa den puntua. Hein batean behintzat, badakigu nolabaiteko tirabirak izan zirela baina ez hauek denboran zehar areagotu edo baretu egin ziren eta zeintzuk ziren hor eztabaidatzen ziren gaiak. Bestalde, ez dugu bizkaitar, gipuzkoar eta arabar korrexidoreen —azken horretan Diputatu Nagusi batez hitzegin beharko genuke— arteko analisi konparatiborik, alegia Gipuzkoako 1520. urteko kasua hobeto ulertzen lagun dezakeen ikerkuntzarik; eta orokorrean, Korrexidorearen erakundea eskal probintzietan txertatzen nola joan zen ulertzeko beharrezkoak diren lanak.

Ahaide Nagusei dagokienez, zehazki beraien inguruko gauza gutxi dakizkigu. Zer nolako egoeratan iritsi ziren momentu horretara, eta gaiari begira, nolabaiteko eragina izan zuten ala ez. Ez da gauza erraza eta tentuz ibili beharreko arloa litzateke, dokumentazioa eskasa eta erreferentzia handiegirik ez die egingo. Soraure ziren leinuen XVI. mende hasierako egoera jakinda, haiek izandako paperari nolabaiteko interpretazioa eman beharko zitzaiokeen.

Gairik garrantzitsuenetariko bat, hiribildu munduko partaideen analisisan datza. Epaiak, zigorrak eta hilabete horietan sorturiko dokumentazioak pertsona izenen zerrenda luzea —150 inguru— egitea posible egiten du, horien artean alkateak, errexidoreak, lizentziatuak edota merkataria azaltzen direlarik. Baina hala ere, haiei buruz ezer gutxi dakigu: udal mailan aurreko eta ondorengo urteetan kargurik bete bazuten, hiribilduen familia nagusien kide bazieren eta azterketa kualitatibo batekin erlazionatutako beste hainbat galde-
ra ditugu.

Hiribildu bakoitzaren kasuan zer nolako egoera bizi izan zen ere ez dakigu. Bakoitzaren barnean tirabirak izan ziren ala ez, inguruko populazio guneekin bilerak izan zituzten, gizonen mugimendurik egon bazen, armen inguruan erosketa edo lanen bat egin zen, eta beste hainbat. Javier Elorzaren antzera egi-

(121) LORENZO CADARSO, P.L.: *Los conflictos populares en Castilla (siglos XVI-XVII)*. Madrid, 1996, Siglo XXI; IDEM: *Fundamentos teóricos del conflicto social*. Madrid, 2001, Siglo XXI.

niko monografiak gutxi dira, eta horien ezean¹²², horietariko arlo asko udal dokumentazioak konpon ditzake: errepartimenduek, aktek, udal hauteskunderiek edota lurren salmentek hein batean lagun diezagukete¹²³.

Hori dela eta, hiribildu mailan gordetzen den dokumentazioa oraindik ere jorratu beharko esparrua dela ikusi dugu. Alde batetik, askok beraien ertaroko dokumentazioa argitaratzeko eta aztertzeke daukatelako, eta bestetik, agerturako dokumentu berriak ez direlako Gipuzkoar gatazkarekin zuzenean landu.

Bestalde, estatuko agiritegiei dagokionez, dokumentazio orokorra argitaratua izan da, baina oraindik ere esparru nagusi bat geratzen da aztertzeke: Erret txanzillerian goredetzen diren auziak. Agiritegi honek, hilabete horietan agertutako pertsonai ezberdinei buruzko informazio ugari eman diezaguke eta zer nolako interes edo jokabide jarraitu zituzten alde batean zein bestean egoteko. Honek guztiak gainera, ikerkuntza berriak ekarriko litzuzke eta gatazka-aren benetako zergatiak jakiten lagundu. Azken finean, ikerkuntza sakonago bat eta ikertzaileek mantentzen dituzten teoriak baieztatzeko edo ezeztatzeko aukera.

Hauek dira, aztertzeke eta aztertzeke dauden hainbat gai; etorkizunean jorratu daitezkeen gaiak direla uste dugu, nahiz eta beti ere hutsuneren bat geratuko den, datu falta dela medio. Gogorarazi nahi dugu, ondorioetan aipatu ditugun arloak ez direla 1520. urtean eman zen eztabaida argitzeko bakarrik. Horiek denek, XV. mende amaiera eta XVI. mende hasierako gipuzkoar gizartearen azterketan ere lagunduko ligukete, gaur egunko ikerketen lortzara jarraituz¹²⁴.

(122) DIAGO HERNANDO, M.: “Transformaciones en las instituciones de gobierno local de las ciudades castellanas durante la revuelta comunera (1520-1521)” In: *Hispania*, 214 (2003), 627.orr. (623-656).

(123) Azpeitiako Udal Agiritegiak, 1520-1521 bitarteko errepartimenduak gordetzen diran non armen erosketak, gizonen mugimenduak eta inguruko herriekin bilerak ikus daitezkeen. Bestalde, Hernaniko Udal Agiritegiak gordetzen duen mendi lurren 1524ko salmentak erakusten dituen erosleen artean, gehienak 1520ean korrexidorearen kontra azaldutakoak dira. Erreferentziak: Azpeitiko Udal Agiritegia, 774-01, 107v^o-114v^o.fol.; Hernaniko Udal Agiritegia, C-5-IV-1/2.

(124) DÍAZ DE DURANA, J.R.(ed.), aip.lan.; IMÍZCOZ, J.M^a: *Redes clientelares y patronazgo. Aproximación al entramado social del País Vasco y Navarra en el Antiguo Régimen*. Bilbo, 2001, EHU.